

pertsonaiak
anañ & zebra
basilio astulez & vocalia
imanol ubeda & bide ertzean

QEU

2 €

2006ko otsaila

158

euskara
ehe. bai eskolak euskalduntzeari!
manu agirre. gose greba
kirola
abaroa saskibalo elkartea

gizartea
presoen oinarrizko eskubideak
sexua
itzulipurdika

irri amari



CEGASA

Energiaren indar bizia

BELAUNALDI BERRI BATENTZAKO PILA BERRIAK



Ekipo elektroniko berriek energia berria behar dute eskaintzen duten korrante intentsitate altuko premiei erantzuna emango diena.

Cegasa-k erronka berri honi emandako erantzuna **CEGASA EVOLUTION** da, goragoko potentzia garatzen duen prestazio askotako pila alkalinoen belaunaldi berria, azken belaunaldiko aparatuentzako energia iturri egokiena.



CEGASA INTERNACIONAL, S.A. Artapadura, 11 - 01013 GASTEIZ
Bezeroarentzako arreta telef.: 902 32 22 32 www.cegasa.com


SUMARIOA158



8



15



20



24



30

zeregin 4
otsaileko agenda

iritzia 6
ivef euskalduntzearen aldeko taldea

geupertsonaia 8
anari

orribatean 11
itzulipurdika: sexu-posturak

kaletik / idazleenzutabea 12
beherapenak / edu zelaieta

euskaltasunean. quebec 13
nicolas bernier delauriers

geugaia 15
ibaetako foroa & eskubide urraketa

batbitan 18
ehe-ren kanpaina: bai eskolak euskalduntzeari!

artetxokoa 20
vocalia abesbatza. basilio astulez. neskatxena

proposamenak
hur & gazte literatura 22
cd-a & liburua / txabi arnal

lauhitzetan 23
'info7' irrati berria / beste

batbitan 24
abaroa sakibalo elkarte

bidaia / errezeta 26
iraganari begira / makailua

arababixotzian
historiazutabea 27
cristina fernandez / erlantz urtasun

batbitan 28
hizkuntza eskubideak:
manu agirre itsuaren kasua

batbitan 30
imanol ubeda. bide ertzean

umorea 32
iñigo sarasola

geu elkartea 33
kultur errota: kokein

iritzia 34
topagunea

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



11



13

Laguntzaileak:



5
ANTZERKIA: HIRU TXERRI-TXUAK (GLU-GLU PRODUKZIOAK)
 >gasteizko principal antzokian, 18:00etan
 familiarentzako antzerkia
gasteizko udaleko kultur saila.
www.vitoria-gasteiz.org



10
KONTZERTUA: BIDE ERTZEAN
 >gasteizko azkena aretoan, 22:00etan
 sarrera: 6 euro aldeztatik (ika-ko euskaltegietan) / 8 euro bertan
ika-k antolatua (kulturika). www.ikanet.net


BERTSO SAIOAK
 >gasteizko bagare elkartearen (aiztogile kalean), 22:30ean
 2005eko arabako txapelketaren finaleko partaideen arteko errebantxa
bagare elkarteak antolatua



11
BERTSO TXAPELKETA: JON AIZPURU SARIA
 >jesus obrerok antolatuta, 'eskola arteko VII. bertso txapelketa'
 lanak idatziz aurkeztu behar / epea: 2006-02-3
 jesus obrero ikastetxea, frantzia kalea, 32. gasteiz
 finalisten ekitaldia: otsailak 11, 'fundazio aretoa' dendarabako kultur
 aretoan, 19.30ean
www.j-obrero.es



11
KONTZERTUA: ANARI
 >azkena aretoan, 21.00etan.
 sarrera: 6 euro (12 euro 30 urte baino gehiagokontzat)
www.gauekoak.com



11
EUSKAL KANTA TXAPELKETA: JON AIZPURU SARIA
 >jesus obrerok antolatuta, 'eskola arteko VII. euskal kanta txapelketa'
 kanta orijinalak edo interpretazioak izan daitezke / aurkezteko epea:
 2006-02-3
 jesus obrero institutua, frantzia kalea, 32. gasteiz
 finalisten ekitaldia: otsailak 11, 'fundazio aretoa' dendarabako kultur
 aretoan, 19.30ean
www.j-obrero.es




12
EUSKARAREN ALDEKO BIZIKLETA MARTXA
 >irteera: jesus obrero ikastetxeko patiotik, 12:30ean
 oharra: parte hartzeko kaskoa beharrezkoa da
www.j-obrero.es

14
KULTUR ERROTA: KOKEIN TALDEAREN KONTZERTUA
 >gasteizko parral tabernan, 20.30ean
 geu elkartearen ekimenez
www.geugasteiz.com



16
DIAPORAMA: HEGOAFRIKAN ZEHAR
 >gasteizko bagare elkartearen, 20:00etan
bagare elkarteak antolatua



18
EUSKARAZKO LANTEGIAK
 eskalada-murrua / arku tiroa izenemate bidezkoak (irekiak: izena egunean bertan eman behar da)
 gasteizko aldabe gizarte-etxean, 22:00-24:00
www.gauekoak.com / kolore biziak elkarte: 945204009




19
MENDI IRTEERA: GEUREKIN MENDIRA / 06
 >bitigarra (1169 m)
 goizeko ibilaldia
 Iovaina plazan, 9:00etan
 arduraduna > maitei: 945282316
 geu elkartearen ekimenez
www.geugasteiz.com



23
GASTEIZKO IRAKURLE KLUBA / 06
 >liburua: eider rodriguez, eta handik gutxira gaur, susa 2004 dinamizatzailea: iban zaldia hikaateneoan (pintore kalea, 13), 20:00etan
 >>martxoan mintzagai izango den liburua: primo levi, sistema periodikoa, alberdania 1998 (1975)
 geu elkartearen ekimenez
www.geugasteiz.com



23
FESTA: HALA BEDI-REN ZEBRABIDEA SAIOARENA
 >gazez, bagare elkartearen



24
ANTZERKIA: LARRU HAIZETARA
 >aldabe gizarte etxean, 20:30ean
 jokin orezik zuzendua eta patxo telleria eta mikel martinez aktoreekin.
 ez dok hiru bikoteatroak
 sarrera: 3 euro (6 euro 30 urte baino gehiagokontzat)
www.gauekoak.com / kolore biziak elkarte: 945204009

>larru haizetara (sexu koadernoak) antzerkia

OTSAILAREN 24AN, 20.30EAN, GASTEIZKO ALDABE GIZARTE ETXEAN. GAUEKOAK-EN ESKUTIK

jokin oregek zuzendutako saioa dugu hau. egilea patxo telleria dugu eta telleria berak mikel martinezekin batera errepresentazioa egiten dute.

ikusleak ustez "sexuari buruzko" ikuskizun batera deituak izan dira. baina sexuarena trikimailu bat da publikoa erakartzeko. jakin ere, ondotox bait dakite jendeak etxeko sofatik ipurdia altzaraztea ez dela batere erraza, eta gai serio bat entzuteko bada, orduan ezinezkoa.

pertsonaiok gai serio eta larri bat dute eskuartean: "lan eskasia eta ezegonkortasuna" salatu nahi dute. horregatik, barka dezatela gezurraikusleak, baina lasai egon dadila publikoa, bere onerako izango baita.

bi dira beraz saioaren gai nagusiak. bata "serioa": pertsonaien egoera laborala; gizartean txertatzeko aukera eza, "entxufismoa"... beste gaia "arinagoa": sexua, euskaldunei (eta batez ere bi protagonistei) hainbesteko kaltea egin diena.

hasiera batean, pertsonaiak ez dute sexuaren inguruan hitz egiteko asmorik, sexua amua zen, jendea erakartzeko gaia. baina sexuarekin erabat obsesionaturik daude. subkonszientek traizionatuko ditu, eta sexu kontuak bata bestearen ondotik etorriko dira, gai "serio"ari apenas tokirik utzi gabe.

>bide ertzean kontzertuan

OTSAILAK 10, 22:00ETAN, GASTEIZKO AZKENA ARETOAN



IKA-K ANTOLATUA

SARRERA: 6 EURO (ALDEZ AURRETIK, IKA-KO EUSKALTEGIETAN) / 8 EURO BERTAN

Karlos Aranzegi-bateria eta perkusioa

Fran Iturbe-gitarra elektrikoa

Imanol Ubeda-gitrarra akustikoa eta elektriko, ahotsa

Joni Ubeda-baxua, koroak

Kaki Arkarazo-teknikari eta ekoizle

Joserra Senperena-piano akustikoa, hammond, wurlitzer eta fender rodhes

bide ertzean taldeak 1998ko urrian hasi zuen bere karrera diskografikoa

5 abestik osatutako maxi batekin. orduz geroztik, hiru lan luze argitaratu ditu: zure minari, grisa eta maite out. euskaraz egindako pop musikan bere bidea egiten ari den banda baten laugarren diskoa da esan bare.

urteen joanean bere musika diskurtsoa sortzen jakin duen talde bat erakusten du esan bare diskoak: kantu batzuk eta musikarekiko jarrera -sosegatua, lasaia- eta konposizio dotoreak benetan. denbora erdiak, melodia argitsuak eta errepikak elkartzen zaizkio pop-rock klasikotik edaten duen errepertorioari. klasizismoa, melodia argiak, kristalinoak eta ahots liluragarriak darizkio bide ertzean bandari.



ken zazpi taldearen kontzertu akustikoa

MARTXOAK 24, 20.30EAN, GASTEIZKO

PRINCIPAL ANTZOKIA ANTZOKIAN

SARRERA: 12€ (BESAUZIA) / 6€

(1. ETA 2. ANFITEATROAK) / 30 URTE

BAINO GUTXIAGOKOENTZAT %50EKO

DESKONTUA

GAUEKOAK-EN ESKUTIK

KEN ZAZPI

talde bizkaitar honek, musika aldetik, rocka eta power-popa lantzen ditu eta hitzei dagokionez konpromezu hitzak dira, beraiekiko eta beraien ingurua-rekiko konpromisoa azalduz, eguneroko kezak eta egoerak deskribatzen dituztelarik, baita sentimendu sakonenak ere. entzun eta norberak ulertu eta sentitzeko letrak dira.

ken zazpi taldearen proiektua 1996an sortu zen gernikan. orduan, bi eta bat abestia kaleratu zuten. dena den, 2000. urterarte ez ziren lanean serio hasi. urte horretan orain taldea osatzen duten taldekideak batu eta maketa bat grabatu zuten. estreineko lana ordea, 2001ean 'atzo da bihar' izenburupean kaleratu zuten. 2003ko udaberrian beraien bigarren lana 'bidean' kaleratu zuten.

azkenik, taldeak 'gelditu denbora' disko berria aurkeztuko zuen aurreko urtean, 2005ean. bizkaitarren hirugarren diskoa akustikoa da eta hemen, abesti berriez gain, taldearen hainbat doinu ezagunen birmoldaketak tartekatzen dira, zenbaitetan soka laukote batek lagunduta. lan hau, hain zuzen, izango da principal antzokian gozatu ahal izango duguna.

>jesus obrero ikastetxea euskara bultzatuz

BERTSO TXAPELKETA: JON AIZPURU SARIA

>JESUS OBREROK ANTOLATUTA, 'ESKOLA ARTEKO

VII. BERTSO TXAPELKETA'

lanak idatziz aurkeztu behar / epea: 2006-02-3

jesus obrero ikastetxea, frantzia kalea, 32. gasteiz

FINALISTEN EKITALDIA: OTSAILAK 11, 'FUNDAZIO ARETOA' DENDARABAKO KULTUR ARETOAN, 19.30EAN

WWW.J-OBRERO.ES

EUSKAL KANTA TXAPELKETA: JON AIZPURU SARIA

>jesus obrerok antolatuta, 'eskola arteko VII. euskal kanta txapelketa' kanta orijinalak edo interpretazioak izan daitezke / aurkezteko epea: 2006-02-3

jesus obrero institutua, frantzia kalea, 32. gasteiz

FINALISTEN EKITALDIA: OTSAILAK 11, 'FUNDAZIO ARETOA' DENDARABAKO KULTUR ARETOAN, 19.30EAN

WWW.J-OBRERO.ES

EUSKARAREN ALDEKO BIZIKLETA MARTXA

OTSAILAREN 12AN, 12:30EAN, JESUS OBREROKO PATIOAN

txirringa martxan parte hartzeko beharrezkoa da kaskoa eramatea!



antzerkia: hiru txerritxuak (glu-glu produkzioak)

OTSAILAK 5, 18:00ETAN, GASTEIZKO PRINCIPAL ANTZOKIAN

FAMILIARENZAKO ANTZERKIA

WWW.VITORIA-GASTEIZ.ORG

[IVEF euskalduntzearen aldeko taldea]

GLURE IKASKETAK EUSKARAZ EGIN NAHI DITUGU ETA EZINEZKOA ZAIGU

Talde hau berria dugu, aurtengo ikasturtean osatu baita, baina berau sortzeko arrazoia zaharra da. Oraingoz Jarduera Fisikoen eta Kirolen Zientzietako Fakultateko ikasleok osatzen dugu taldea, baina gure izenarekin bat datorren edozeinek parte har dezake bertan eta hala egitera animatzen ditugu guztiak.

Esan bezala, taldea sortzeko arrazoia zaharra da; "IVEF" aspaldi jarri arren martxan, euskalduntzeko dago oraindik. 19 urteko adina dute ikasketa hauek, baina oraindik ikasgai asko eta asko gaztelera hutsez irakasten dira. Datu zehatzak begiratzen baditugu, hautazko irakasgaien hiru laurdenak gaztelerazkoak direla nabarmentzen da. Hau alderatzen badugu ikasleon %70ek ikasketak euskaraz egiteko egiten duen hautuarekin, lehenengo ondorioa garbia da, ikasleok ikasgai hauek ikasi nahi izanez gero, gazteleraz ikastera derrigortuta gaudela, euskaraz ikasteko eskubidea ez delarik errespetatzen.

Baina euskararen presentziari eta erabilpenari dagokiona ez da hemen bukatzen. Euskaraz eskaintzen diren ikasgai gehienak ere gaztelerazko material bibliografikoan oinarrituta irakasten dira, oinarritzko bibliografia gehiena ez baita euskaratu, ez eta euskaraz sortu ere. Hau guztia horrela izanik, munduan ikasketa hauek euskaraz ikasteko dugun leku bakarrean ere ezin ditugu osotasunean euskaraz egin.

Euskararen egoera honen ondorioz, gure euskarazko formazio tekniko-zientifikoa murriztuta gelditzen da, horren ondorioak gero guk lan egingo dugun esparruetan igarriko direlarik.

Jarduera Fisikoen eta Kirolen Zientziak dira gure ikasketak eta euskaraz egin nahi ditugu, baina hori oraingoz ezinezkoa zaigu. Zientzia hauek, beste zientzia guztiak bezala, hizkuntzaren bidez txertatuko dira kultura batean eta kultura horretako hizkuntzaren garapenari bultzada emango diote. Era berean, hizkuntza horrek zabalkunderako bultzada emango die zientzia horiei.

Guk aukeratu dugu zein zientzia ikasi. Guk aukeratu dugu zein hizkuntzatan ikasi. Guk aukeratu dugu dagoeneko zein zientzia eta zein hizkuntza garatu eta zabaldu nahi ditugun eta gure formazio

eskubidea eta hizkuntza eskubidea errespetatzea besterik ez dugu eskatzen.

Jarduera Fisikoen eta Kirolen Zientziak dira gure ikasketak eta euskaraz egin nahi ditugu, baina hori oraingoz ezinezkoa zaigu. Eta ezintasun hori bukatu behar dela aldarrikatzeko batu gara 'IVEF euskalduntzearen aldeko taldea' sortuz.

Gure aldarrikapena zabaltze bidean, dagoeneko sinadura bilketa bat egin dugu gure fakultatean. Askok eta askok egin dute bat IVEF euskalduntzeko eskakizunarekin eta laguntza ekonomikoa ere luzatu digute, aldarrikapen hau indartu eta gure fakultateetik kanpo ere entzun dadin.

Hemendik aurrera 'Ni ere "IVEF" euskalduntzearen alde nago' kanpainaren zabalpenari ekingo diogu. Kirol elkarteetara, dantza taldeetara, federazioetara, ikastetxeetara, fakultateetara, besteak beste, zabalduko dugu gure aldarrria eta guztietan sinadura bilketak egingo ditugu. Izan ere, gure esparruan diharduten guztiek dute euskaraz gure fakultatean duen egoeraren berri izateko eskubidea, geroan beraien jardueretan zer esana eta zer emana izango dugulako.

Jarduera Fisikoen eta Kirolen Zientziak dira gure ikasketak eta euskaraz egin nahi ditugu, baina oraingoz ezinezkoa zaigu. Beraz, honek konponbide bat behar du eta horregatik hau konpondu dezaketengana jo dugu zuzenean, Euskal Herriko Unibertsitateko Errektoretzarengana eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarengana, alegia. Beraiei zuzendu diegun eskakizuna eta bere egunean komunikabideen aurrean aipatu genuena, euskaraz ikasteko eskubidea errespetatzea bezain sinplea da. Guk eskakizun hau bi puntutan zehaztu dugu:

Lehenengoa: Jarduera Fisikoen eta Kirolen Zientzien ikasketak euskaraz burutu ahal izateko, hau da, ikasgai guztiak euskaraz ikasteko aukera izateko baliabideak ezartzea.

Eta bigarrena: Ikasgai hauen oinarritzko bibliografia euskaraz izateko baliabideak ezarri eta inbertsioak egitea. •



IVEF Euskalduntzearen
Aldeko Taldea



Jarduera Fisikoen eta Kirolen Zientziak dira gure ikasketak eta euskaraz egin nahi ditugu, baina hori oraingoz ezinezkoa zaigu

Zure denda erotikoa

SEX



Sexua euskaraz bizi

PITILIN GORRI

GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA
OIARTZUN

Obren egite eta zuzentzea

ALTUNA Estudioa

"Azerlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 behean - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30




Errege atea, 9 - GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85



IZARRA TABERNA - JATETXEA
BITORIANO - ZUIA (ARABA) • 945 430 073

XIXILU JATETXEA

AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 - GASTEIZ

UZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA

KERAMIKA HERRIKOLA ETA BERRIA

HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

Xabier

taberna

musika ona
eta giro ezin hobea

Aiztogile kalea (KUTXI), 23



Hegoamerikako jantzirik ederrenak

Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoiko artzosa) Tfnoa: 945 25 03 52

BAR KLAKÉ



KVTXA, 2
TFNO. 143883
GASTEIZ

ARANBIZKARRA

ZURE AUTOESKOLA!

Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz



eguneko menua

DIBUtec

Paper Beretzak
Arte Ederretarabko Materiala
Ink jet original eta birziklatuak
Bullogo Materiala
Enkuzdemazioak
Plastifikazioak
Kopiak
Kamiseten Estropaketak

Arzakprint
Inprimatza / Inprimatzaia
Edozein inprimaketara mota.

• PAPERTEGI TEKNIKOA • Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ • INPRIMATEGIA •



EGUR

Zurezko Teiltuak
Muntaiak Garabiarekin
eta Berrikuntzak

Padurea kalea 12, 16 Pab.
Goian Poligonoa, Legutiano
01171 Araba
Tel.: 627 417 747
Faxa: 945 465 921
montajesegur@eushalnet.net



eusko alkartasuna

Gazte Abertzaleak

Euskeraz Araban BAI

www.euskoalkartasuna.org
c/ san prudencio 3
gasteiz-erdialdea

www.gazteabertzaleak.org
c/ vicente manterola z/g
zaramaga

Argazki - Estudioa

Erramun

Heradio Fournier, 23
Tfnoa: 13 71 02
01006

Askatasun kalea, 5
Tfnoa: 26 19 91
01004



Sartu

Zure arropa eta oinetakoak

www.sartudenda.com

Kutxillera, 27 • Gasteiz • 945 260 710

ESKAL TABERNA

Eguzkitan, astrolonatik ostaldera

JANTOKI BEGETARIANOA

SAN FRANCISKO XABIERKOAKEN KANTOLA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL: 945 27 65 33

TXUKUNA

EUSKAL HERRIKO EHUNAK:
bainu-batak, oihalak,
sukaldeko zapiak,
patchwork ohe-estalkiak...

Nafarroako errege-erreginen kalea, 11

HEGOALDE
Euskaltegia


Matrikula zaituz !!

Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ



ANARI:

"Guk dena
konplikatzen
dugu hitzekin"



[arg.: galder izagirre]

Ahots berezia, urratua, barnetik aratz eta gordinik ateratzen dena antzeman dakioke Azkoitiko abeslariari. Bost urteren buruan datorkigu Anari bere disko berriarekin, 'Anari' (1997) eta 'Habiak' (2000) aurretik kaleratuak zituela. 'Zebra'k animalien dikotomiarekin eta irudimen errealistarekin jolasten du bere baitan bildutako hamar kantetan. Tolosako Bonberenean grabaturiko diskoa **hilaren 11n aurkeztuko du Anarik Gasteizko Azkena aretoan, 21.00etan.**

[Josune velez de mendizabal]

Zebra, zergatik izen hori?

Erlatibotasunaren sinboloa izan daiteke-elako, gauza berari begiratu eta bi ikusi, basatia delako, diskoaren kromatismo bera duelako.

"Zebra naiz oraindik. Lehen zuria marra beltzez. Orain, berriz, beltza marra zuriz." Anari beti Anari, zuriz edo beltzez?

Ni beti ni, baina nor naiz ni?; izan naizen eta izango naizenaren artean zerbait.

'Habiak' kaleratzean esan zenuen ez zenuela zeure burua luzaroan Anari modura ikusten...

Mantentzen dut. Beste zerbait egin nahiko nuke, beste jende batekin lan egin, nahastu.

Bost urte pasa dira zure azkenengo diskotik, nola aldatu da Anari musikalki lehen diskotik hona?

Uste dut lehen diskotik hona ez dagoela halako alderik; bigarrenera distantzia gehiago dago bai lehenengotik eta bai honetatik ere. Nik uste eboluziorik handiena

idazkeran eman dela.

Esan duzu hau ez dela egin nahi zenuen diskoa, baizik eta egin behar zenuena. Beharra eta nahiaren arteko liskarra?

Halako zerbait. Edo exortzismoari beldurra. Zenbait lekutara begiratzeko gogorik eza...

'Zebra' diskoan, 'Habiak' diskoan bezala, gertaerak eta uneak deskribatzeko naturaren eta animalien metaforak erabiltzen dituzu (zuhaitzak, zerua, lurra, arrainak...). Zergatik?

Ez dakit. Guk dena konplikatzan dugu hitzekin eta gauzak argitzearekin. Azkenean, beti gauzak interpretatzen ari gara; tripako mina duela esaten badizu norbaitek, zuk zure tripako mina gogoratu eta interpretatu behar duzu berarena ulertzeko. Hortxe hasten da arazoa. Natura sinpleago bezala ikusten dut, niri errazago egiten zait interpretazioa.

Zure katek tristezia, malenkonía kutsua dute. Errazago egiten zaizu horrela abestea beste modu batean baino?

Disko honetan badago hortik alde egiteko intentzio bat. Saiatu naiz malenkonía hori hausten. Ez dut batere maite egoera hori. Zuri-beltzarena hori ere bada.

Anariren musikak eta katek erabat pertsonalak direla islatzen dute, beste abeslari-bakarlarirena baino barrurago sartzen da Anariren ahotsa belarrietatik arimaraino... Ez da elementu konparatiboa. Jende askori

ez dio ezer esaten. Subjektiboegia da agian horrela erantzuteko.

Nola sartu zinen musikan?

Lehenengo sartu egin ninduten, akademian. Gero berriz, nire lagun min baten anaia zaharrak zituen diskoen bitartez. Entzutetik imitazióra pasatu eta hemen gabiltza oraindik...

Emakumeen presentzia euskal musikan... Zer iritzi diozu?

Oso guapoak direla denak. Zer esango dizut bada? Emakumeen presentzia leku guztietan da urriagoa, eta hori dena...

Zu musikaria izateaz gain irakaslea zara. Musikaz soilik bizitzea gustatuko litzaizuke?

Bai, baina benetan. Madonna eta horiek bezala.

Nola ikusten dituzu zure entzuleak? Nolakoak dira? Emakume asko joan ohi dira zure kontzertuetara? Zeintzuk identifikatzen dira zure musikarekin, alegia?

Emakumeena oso kurioa da. Asko joaten dira, egia da. Nire taldekideak oso gustura daude kontu honekin, txiste asko egiten dute honen inguruan...•

DI-DA

>animalia bat:

zaldia

>hitz bat:

ezin bat aukeratu...

>irria ala negarra:

irria

>"ezin zaitudanez ahaztu, beharko zaitut nahastu" (zure hitzak)...

nahastu

>maitasuna:

...

>ura garelako gara naufragoak" (zure hitzak berriro ere)... ito al zara inoiz? (baietz bada, zertan, non?):

ez nengoke hemen

>eszenatoki bat:

Azkoitiko Matadeixe

>amets bat:

asko



ANARI

MARRAZKIAK · KOADROAK

MOLDURAK

LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

**Euskadik
behar zaitu**



ITZULIPURDIKA

Xirri partiden irudimenerako gida askea

Xirika gazteondako kazeta bat baino gehiago da. Gazteon sorkuntzaren bultzatzailea izateaz gain, sorkuntza horren bitarteko izan nahi du. Orain arte hala erakutsi dugu: Gazte Matxinada liburua, Entsegu Lokala eta Okupazioaren Aldeko Oihuak diskoak, komiki lehiaketa.

[Yves Matxikote (Lapurdi)]

Gazte batek bere lan bat argitaratu nahi duenean, oztopoz beteriko bide batetik pasa behar da. Berak baino esperientzia eta baliabide handiagoak dituzten sortzaileekin lehiatu behar du eta askotan, mundu horretan kontakturik ez izateak bere lana anonimatuan uzten du.

Xirikak aintzat hartzen du gazteok literatura, musika edo, molde zabal batean, kulturari egiten ahal diogun ekarpena. Euskal sorkuntzari freskotasuna eta ikuspegi berri bat ekartzen diogu, ikuspegi gazte bat. Gazteon ekarpenik gabe, euskal kultura hankamotz geldituko litzateke. Gazteok gara etorkizuneko idazleak, musikariak, poetak, marrazkilarik eta eskultoreak. Horrexegatik, Xirikak bere gain hartzen du sorkuntza horren oihartzuna egitea.

Kasu honetan, marrazkiak argitaratu ditu. IF-ek Xirikarentzat marraztutako sexu posizioa. Baina ez datoz bakarrik. Izan ere, posizio horiek azalpentxoak behar dituzte eta marrazki bakoitzak testu bat dakar. Euskara bizi eta gazte batean. Xirikan astero proposatzen da Itzulipurdika atalean postura berri bat eta orain arte argitaratu ditugun bilduma bat da liburu hau.

Erran gabe doa, beraz, Itzulipurdika liburua erabat bat datorrela Xirikaren filosofiarekin.

ITZULIPURDIKA: BEROALDIA AITZIN

Urte bat et'erdia pasa da Xirika Gazteon Kazetak lehen alea argitaratu eta banatu zuenetik. Egun hartatik, astero-astero, itzulipurdika sexu posturen atalak xirri egiteko proposamenak luzatu dizkie irakurleei.

"Itzulipurdika, xirri partiden irudimenerako gida askea" lan horren lehen bilduma da. Bertan bilduak dira bikote, talde edo bakartientzako posturak eta sexu jokoak. Luzaz giristinoek "bekatu" edo debekatua den joera bat zela hezurretaraino sartu ziguten. Alta, horrek norberaren ongizaterako eta orekarako betetzen duen papera nabarmena da. Sexua gauza ezin naturalagoa da.

BERAZ BADA GARAIA TABUAK HAUSTEKO!

Horrela iritsi gira gida "aske" honen egitera. Gida honetan nehor ez da baztertzen, ez neskek ez mutilak, ez heterosexualak ez homosexualak, ez eta xirri festa egiteko taldean aritzea bururatzen zaienak ere.

Jatorrizko Kamasutraren sexu atalak 5.000 postura proposatzen ditu. Jakin behar da postura horien guztien artean, deklinazio anitz badirela. Horrela, postura batek bertze bortsor ditzake gorputzaren mugimenduttipi baten ondorioz, horrek sentsazioetan aldaketa bat eragingen duelarik. 5000etatik urrun baldin bagira ere, irudimenerako lehen gida honek pistak eman

nahi ditu.

Horrela, bereziki postura heterosexual eta akarren artekoentzat, egokipenak egin daitezke. Harpe iluna adibidez, denok izaten dugun gauza bat da (harropuzte ere bai, e!). Jakin behar da ipurtxiloko sarketa horiek homosexualen praktika hutsarekin lotzea gezur historikoa dela, sorgin emeei ere gustatu dakiekeelako. Hori horrela izanik, akerrak bikoteentzat proposatzen den postura bat bikote heterosexualentzat ere baliagarria litzateke adibidez.

Orrietan zehar atxemanen diren proposamen anitz koitoarekin lotuak dira, pottotta edota xilo beltzeko sarketak dira. Xirri kidearen edo norberaren sexuarekin jolastea dator bigarren lekuan.

Maitasuna eta xirri egitea, koito edo sarketa "single" bat baino gehiago da. Horregatik hemen proposatzen diren posturak testuinguru zehatz batean egitekoak direla azpimarratu nahiko nuke.

Gutti batzuek, igelbelarra edo baredantza bezalakoek, gorputza hunkitzea eta laztantzea hobesten dute. Horiek momentu goxo-goxoak pasatzeko proposatzen dira, koitorako aukera edo gogo berezirik ez denerako. Aldiz, xirri partida aztoratuentzako oinarritzako osagai izan beharko dute. A zelako gauza tristea biluxtea

eta segidan sarketan aritzen hastea! Beraz, jolas hau norberaren abileziaren gain egoten den kontu bat da; espero dut hamaika orriko gidarik ez dela behar ferekatzen ikasteko, ezta?

Xirri egitea, bakarlarri jolasa ez ezik, jentil ezberdinen arteko harremana da. Izan bedi beraz horrela! Berekoieriak ez du lekurik eta norbere burua asetzeko norbait erabiltzea bere iritzia kontutan hartu gabe, Itzulipurdikak duen filosofiaren aurka doa. Neska ala mutil izan, xirri egiteak begirunean oinarrituriko ekimen bat izan behar du. Maitasuna izan

ala ez, baina beti elkar adostua!

Batzuk maitale izanen dira, bertze batzuk lagun onak eta elkar asetzeko irrikan daudenak, baina otoi, ez bedi gida hau bortxaketarako erabilia izan!

Abenduaren 1eko HIESaren aurkako nazioarteko egunaren testuinguruan izanik, bereziki harreman aldakorrek dituztenek edota xirrikidearen osasunaz gutti dakitenek neurri prebentiboak hartzea ere oinarritzotzat jotzen dugula azpimarratu nahi dugu. Izan ere, sexu bidez transmititu daitezkeen kutxaketa biralekin edo infekziozkoekin askatasuna lapurtzea onartezina da. Beraz xintxo ibili, kondoia erabili.

Bukatzeko gida honek azken ohar bat eman nahi die Euskal Herriko belaunaldi ezberdinei. Norberaren sexua, sexualitatea eta pertsona bera begirunez hartzeaz gain, xirria ere euskaraz egin daitekeen eta egin behar dugun bizitzako jolas bat da. Beraz, Herriko gaueroko milaka akelarretxoak bizi bitez, aske eta euskaraz!•

>izenburua: itzulipurdika. xirri partiden irudimenerako gida askea

>egilea: yves matxikote, if (marrazkiak eta testuak)

>orri kopurua: 184

>salneurria: 15 euro

>noiztik: 2005eko abenduaren 7tik aitzina

>non: liburutegietan (zerrenda: www.xirika.com) / xirikara deituz [0(033)5 59 54 19 18] - senpere (lapurdi))



[maite lekue / saioa fdz. de arangiz]

Beherapenak heldu dira!

Inkestek diote beharpenetan erositako produktuen %90 baino gehiago, gutxi edo ezer ere ez, erabiltzen dela. Orduan zergatik erosi hainbeste? Aukera onak salgai direlako ala izaera kontsumistak erakusleinhoetatik barna harrapatzen gaituelako? Gasteizko hirritaren iritziak jasotzeko kalera atera gara beste behin.

1. Gabonetako erosketak pasata, beharpenetara jo ohi duzu?
2. Aukera onak aurkitzen direla uste al duzu prezio eta kalitateari dagoniengan?
3. Aurrez pentsatzen duzu zer erosi ala uneko erabakia izaten da erosketa?



Sua Gil, ikaslea

1. Gabonetan arropa gutxi erosten saiatzen naiz, prezioak izugarri igotzen direlako eta diru xahutze inozoa iruditzen zaidalako. Bestalde beharpenak aprobetxatzen ditut neguko arroparen bat erosteko.
2. Dendaren arabera izaten da hori. Denda batzuek beharpenetarako arropa konkretua jartzen dute salgai, beste batzuek aldiz, dagoen arropari prezioa murrizten diote. Batzuetan gauza onak aurki daitezke prezio onean.
3. Behar dudana bilatzen joan ohi naiz eta aurkitzekotan erosi egiten dut.

Igor Molinos, ikaslea

1. Bai beharpenetara joaten naiz normalean.
2. Askotan ez da prezio aldaketa handirik nabaritzen, baina batzuetan asko bilatuz gero aurki daiteke.
3. Normalean aukera aprobetxatzen dut, kalera ateratzen naiz zer dagoen begiratzera eta gustatuz gero erosketaren erabakia hartzen dut.



Mari Paz Lobede, langabetua

1. Bai, noski!
2. Lehenengo egunetan hainbat gauza aurki daitezke, ez da uste bezain merkea izaten baina badira hainbat produktu.
3. Aurrez pentsatua izaten dut zer erosi, eta ikusia zeozer; azkenean ikusten badut erosi egiten dut.



MODU BERRIEZ

[edu zelaieta]



Elkarren orpotik etorri ohi dira modak eta moduak. Modak, askotan, bolada baterako moduak baino ez dira izaten. Jantzeko moduak direla, jateko moduak direla edota ondo pasatzeko moduak direla. Moda modua da, funtsean.

Ez nintzateke moda izatera iritsiko denik esatera ausartuko. Nolanahi den, gure hiri honetaz nahikotxo esan lezakeela iruditzen zait. Eta hiritarroz, jakina. Izan ere, berriki ikusitako gauza batek ezustean harrapatu ninduen. Segidan azalduko dizuet. Gasteiz Etorbidean nintzen ni, gidabaimena lehenbiziko aldiz berritu behar bainuen (akabo nire ekologista ospea. Alferrrik arituko naiz esaten autoa tartekamarteka bakarrik hartzen dudala). Espaloi zabalean gizon bat dirua eskatzen ari zen. Belauniko. Kartel bat zuen ondo-ondoan: *neure sorterrira itzultzeko dirua behar dut, mesedez*. Esan gabe doa kartela gaztelania hutsean zegoela, akats eta guzti ("bolver"). Gizonak ez zuen jateko eskatzen. Ez zuen jantzeko eskatzen. Ez zuen bizitzeko eskatzen. Ez. Bere sorterrira itzuli ahal izateko dirua eskatzen ari zen. Kartelak behintzat hori adierazten zuen.

Ez dakit nola joan zitzaion goiza. Hala ere, sos batzuk bilduak ote zituen ikusmina sartu zitzaidala aitortzen dut. Esaldia gogoan iltzaturik eduki nuen aldi batez: *neure sorterrira itzultzeko dirua behar dut, mesedez*. Dirua eskatzeko estrategia hutsa zen ala benetan sorterrira itzuli beharrez ari zen gizona? Oraindik ez dut zalantza uxatzea lortu. Edozein kasutan ere, kartel berri horrekin gizon hark arrakasta gehixeago izango zuela ziur naiz. Hiri honetako nork ez du nahi etorkin eskaleak euren sorterrira itzul daitezen? Nork nahiago ditu hemen, gure artean, espaloi erdian, diru eskean?

XXI. mendeko moda berriekin batera, gizaldiko modu berriak ere heldu zaizkigu Gasteizera. Batzuk letra handitan, ederki iragartzen dizkigute. Beste batzuk, berriz, oharkabean igarotzen dira. Moda eta modu kontu hauetan, nago sorterrira eta atzerria gero eta antzekoagoak direla. •

NICOLAS BERNIER DELAURIERS quebectarra:

"Nik uste Gasteizen euskaraz bizi daitekeela, ni saiatzen naiz behintzat"

[josune velez de mendizabal]

[arg.: edorta sanz]

Euskaltegiko seigarren urratsean ari da Nicolas Bernier Delauriers euskara ikasten. Hogeita bost urteko Quebec-eko gaztea Gasteizen bizi da egun Erasmus bekaren bidez, ekainean amaitu artean. Hizkuntzalaritza ikasten dihardu eta Gasteiza etorri baino lehen Lazkao eta Zornotzako barnetegietan egon da. Euskaraz gain, frantsesez (ama-hizkuntza), ingelesez eta gaztelaniaz hitz egiten du.

✓ gasteiz atsegin du, bere giroa, "ostegunetakoa batez ere", dio barrezka

✓ baita bertako jendearen berotasuna eta harrera ona ere: "jendea oso ondo portatu izan da orain arte nirekin, agian kanpotarra naizelako edota euskaraz egiten dudalako", dio irribarretsu

Duzun biziorik handiena? Kaferik ez dut hartzen, ez dut erretzen...mmmh...zinema izugarri gustatzen zait.

Eta bertutea? (barreak)...ez dakit, eta lagunei ere ez diet galdetu (barreak).

Akats bat? ...agian batzuetan alferra naizela, batez ere etxeko-lanak egiteko.

Zer eskatzen diozu bizitzari?

Lagunak izatea.

Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Mentalitatez itxiak diren pertsonek.

Geu aldizkaria eta elkartearen berririk bai?

Bai, interneten webgunean sartu izan naiz.

Egunkari bat? Gara eta Berria.

Telebista saio bat? Ez dakit, telebistarik ez dut ikusten, etxean ez daukagu.

Beldurrik? Bertigoa daukat.

Oporrak non eta zertarako? Txinara joatea gustatuko litzaidake, eta zertarako? Bestelako kulturak ezagutzeko.

Eta nora ez zinateke joango? Horrelakorik ez dago.

Eguna ala gaua? Astearen arabera baina akaso eguna.

Liburu bat? 'L'avalée des avalées', honen itzulpena zaila da hitz jokoa da eta.

Pelikula bat? Andrei Tarkovsky-ren 'Ispilua', errusiarra da filma.

Kolore bat? Ez dut bereziki kolore bat gustuko baina txikia nintzenezan laranja gustatzen zitzaidan, ez dakit zergatik, kar, kar...

Janari bat? Txinatarrak baina benetazkoa, lagun txinatarrak ditut eta horiek egiten duten janaria gustatzen zait.

Musika talde bat? Euskal Herriko musika gustatzen zait, denetarik baina rocka bereziki.

Quebec-eko talde bat bereziki, Harmonium izenekoa.

Zer da Gasteizek duen onena? Giroa eta jendea.

Eta txarrena? ...ez dakit, esan dezaket agian txikia dela baina hori ez da zerbait txarra, niri hiri handiak nahiz txikiak gustatzen zaizkit...

Euskaraz bizi al daiteke Gasteizen? Baietz uste dut, ni saiatzen naiz behintzat.

Amesgaizto bat? Quebec-eko mugimendu autoktonoarekiko bazterketak bere desagerpena ekarrezala. •

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis

GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 - GASTEIZ



XABIER AIZPEOLEA

HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3 ☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3 ☎ 945 26 78 97



gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak

IRVSTA TABERNA

poteo eta pintxoak

Mateo Moraza 19

Tfnoa: 945 23 19 33 GASTEIZ

ESPEZIALITATEA:

Patata tortila • Otartekoak

Udaberria

euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Helduentzat
- Ume eta gaztetxoentzat
- Musika eskola
- Dantza

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65

Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

ARTEPAN

Artisau

Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2

Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

LA RIOJANA

jatetxea

on egin!

bokatak,

pintxoak,

kazuelatxoak

Aiztogile kalea (KURXI), 33 tfnoa. 945 25 02 39



GORETTI

ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)

Tfno: 945 12 08 88 • 01001 - GASTEIZ

bonardi
armazoi berriak
38€

Orain Bonardi izan zaitezke zu ere...

ZERBITZU
OPTIKOETAN
1a

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

IBAETAKO FOROA:

ZIEGETAKO AHOTSAREN BOZGORAILUA

Urrunduak, sakabanatuak eta atzerriratuak daude euskal preso politikoak. Gogorrak dira oso bizi dituzten bizi baldintzak. Ia 700 euskal herritar 88 kartzelatan barreatuta. 700 ziega Euskal Herritik, batez beste, 724 kilometrora. Gizarteari errealitate larri horren berri emateko, eta presoen oinarrizko eskubideak aldarrikatu eta Euskal Herrira lehenbailehen ekar ditzatela eskatzeko sortu zen pasa den azaroan Ibaetako Foroa.

[edurne begiristain]

Presoen eskubideen aldeko dinamikari astinaldi bat emateko xedez sortu zen duela bi hilabete Ibaetako Foroa. Espetxe politikaren "larritasuna" dela-eta erabaki zuten 34 gizarte eragilek euskal presoen eskubideak aldarrikatzen dituen manifestua hitzartzea. *Eskubideak bermatzeko, konponbidea sustatzeko* izena du testuak. Honakoak dira manifestua sinatu duten eragileak: ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, Hiru, EHNE eta ELB sindikatuak, AEK, Herria 2000 Eliza, Bai Euskal Herriari, Torre de Babel, Hegoaren Sarea, Segi, Duina, Etxerat, Askatasuna, Bilgune Feminista, EGHAM, Torturaren Aurkako Taldea, Eguzki, Gurasoak, Askapena, Behatokia, Ikasle Abertzaleak, ESAIT, EHE, Iratzarri, Komite Internazionalistak, Anai Artea, EHBE, IPES, Elkartzen eta Hemen eta Munduan. Eragile horien sustapena ez ezik, ehunka euskal herritarren atxikimendua ere jaso du euskal presoen eskubide zibil eta politikoak errespetarazteko deiak.

"*Terrorismoaren aurkako borroka* deitutakoak eragindako salbuespen arauen ezarpena dela-eta", 700 euskal preso daudela dio eragileek adostutako manifestuak. Euskal presoen %98 Euskal Herritik at daude, eta oro har, bizi baldintza gogorretan dituzte. Hala, presoek dagozkien eskubideak bermatzeko exijitu diete askotariko eragileek Espainiako eta Frantziako gobernuari manifestuan.

Baina bi estatuei ez ezik, herritarrei ere deia egiten diete eragileek manifestuan. Presoen aldeko ekimenetan -bereziki hileko azken ostiraletan parte hartzeko, euskal presoek Euskal Herriratzearen aldeko ikurra zabaltzeko, eta oro har, presoek aldeko aldarriekin bat egin eta aktibo izateko eskatu diete.

[arg.: argazki press]



BI ESTATUEI ESKAKIZUNAK

Egun Espainiak eta Frantziak indarrean duten espetxe politika salatu dute eragileek hitzartutako agirian, eta honako eskaerak egin dizkiete:

- "TRATU DUIN ETA BEGIRUNEZKOA JASOTZEKO ESKUBIDEA":

- Tortura eta tratu krudelik ez.
- Ez isolamendurik, ez jipoirik.
- Beren nazio zein kultur identitatearekiko begirunea.

- OSASUN ESKUBIDEA:

- Osasun zainketa duina.
- Konfiantzako sendagileek ere bisitatzeko aukera.

- KOMUNIKAZIO ESKUBIDEA:

- Ez interbentziorik, ez murrizpenik.
- Euskaraz ere komunikatzeko askatasuna.

- HIZKUNTZ ESKUBIDEA:

- Euskaldun legez, beren garapen integrala euskaraz egiteko askatasuna.

- HEZKUNTZA ESKUBIDEA:

- Ikasteko zangoztrakik ez.
- Ikasketak euskaraz ere burutu ahal izateko aukera.

- AMA ETA AITATASUN ESKUBIDEA:

- Duintasun osoz ama izateko eskubidea.
- Aitarekiko komunikazioei trabarik ez.
- Kartzela barruan umeen bizi kalitatearen errespetua.

- ASKATASUNERAKO ESKUBIDEA:

- Baldintzapeko askatasuna aplikatzea zigorraren hiru laurden edo bi heren bete dituzten presoek (epaituak izan ziren zigor kodearen arabera).
- Legez dagozkien erredentzioak aplikatzea inolako diskriminaziorik gabe.
- Larriki gaixo daudenen berehalako kaleratzea.

- EUSKAL PRESO POLITIKOEN KOLEKTIBO GISA, EUSKAL HERRIAN ETA ELKARREKIN BIZITZEKO ESKUBIDEA:

- Kolektiboak izendaturiko mintzakidetzaren aitortza.
- Kolektibo gisa gainerako eragileekin harremanak izateko askatasuna.
- Euskal gizartean eztabaida eta erabaki guneetan parte hartzeko aukera eta askatasuna.

[arg.: edorta sanz]



ESKUBIDEEN URRAKETA: Presoaren duintasuna zanpatuta

Oinarrizko eskubideak zanpatuta dituzte euskal presoek. Bizi baldintza latzak pairatzen dituzte kartzelan. Adibideak ugariak dira, Iba-etako Foroak gogora ekarri duenez:

Osasun asistentzia eza: Infekzio arriskuak ekiditeko prebentziorik eza, eta kontagioak ekiditeko protokolorik eza. Euskal presoak kartzelaz aldatzen dituztenean mediku txostenak galdu edo oso berandu iristen dira sarri...

Jipoiak: 2004 urtean 40 euskal preso jipoituak izan ziren kartzelan. Frantziako kartzelei dagokienez, epaitegira atera behar dituztenen erakusten ari diren jarrera nabarmentzekoa da: presoak biluztu ondoren makurrarazi egiten dituzte indarrez, batzuetan kolpeka ere...

Isolamendua: Espainiako Estatuan dauden euskal preso politikoek %25 inguru bizi baldintzen erregimen murriztuan eta fisikoki isolamendu galerietan daude. Zaila da bertan denbora luze emanda oreka psikologikoan edota sentimen organoetan eraginik ez izatea.(...) Frantziako Estatuak dituen beste bitarteko batzuk mitard-ak ala zigor ziegak dira. Mitard-ak oso neurri txikiko zulo zikin eta ilun batzuk dira eta, bertan dituzten bitartean, euskal presoek eskutitzak idatzi eta eguneko liburu bat irakurtzeko eskubidea dute soilik...

Ikasteko eskubidea: Espainiako espetxeetan dauden ikasle presoek itxita dute ikasteko atea, Madrilgo UNEDen ez bada. PP-PSOEek diseinatutako espetxe politikaren ondorioz, 2002-03ko ikasturtean kanporatu zituzten ikasle presoak EHUtik eta 2005-06 ikasturtearen hasieran oraindik ez zieten ikasteko eskubidea onartu. Ondorioz, euskaraz ikasteko eskubidea ere ukatuta dute...



[arg.: argazki press]



SAKABANAKETA: Zigor gehitua. Istripuak


Gaur egun 674 euskal preso politiko daude lau estatutako 88 kartzelatan sakabanatuta. Espainiako Estatuko kartzelatan 514 preso daude, 52 kartzelatan barreiatuta. Batez beste, Euskal Herritik 694 kilometrora daude. Horietatik 15 baino ez dituzte Euskal Herriko espetxeetan. Frantziako Estatuari dagokionez, 154 euskal preso politiko daude 33 kartzelatan. Batez beste, Euskal Herritik 824 kilometrora. Gainera, Londresen (Britania Handia) euskal preso politiko bat dute, eta Mexikon bost dituzte kartzelatan.

Espainiar Estatuan iazko urte hasieratik burutu zituzten destino aldaketen %40 inguru, euskal presoak Euskal Herritik oraindik eta urrunago eramateko izan ziren.

Sakabanaketa politika berez zigor gehitua da presoentzat, baina bereziki senideentzat. Iaz sakabanaketa politikak 28 istripu larri eragin zituen. Istripu horiek euskal preso politikoak bisitatzera zihoazen ala bisitatik bueltan ziren 72 senide eta lagunek pairatu zituzten

SENIDEEN SUFRIMENDUA

Sakabanaketa politika kostu ekonomiko izugarria da presoen familia eta lagunentzat. Askotan, familiaren ekonomia arriskuan jartzerraino. Presoen urrunketa politikak batez beste hilero 1.509 euroko kostua dakarkio familia bakoitzari. Hori ez da, baina, preso senideek pairatzen duten sufrimendu bakarra. Bisiten murrizketak ere ugariak izaten dira. Espainia zein Frantziako espetxeetan, sarritan, hurbiltasun ideologikoa argudiatuta bisitak galarazita dituzte lagun eta senide askok. Espainiako kartzela gehienetan, lagunak zerrendak murriztu egin dituzte. Halaber, euskal preso politikoen komunikazioak interbenituak daude, hau da, bisitak grabatu egiten dituzte eta eskutitzak, irakurri. Horregatik, euskaraz idatzitako gutunak hilabete, bi hilabete... beranduago iristen dira.●





ERROTA

HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net

Bacalao Giraldo



- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin



ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza
GASTEIZ

BAI ESKOLAK EUSKALDUNTZEARI!

[josune velez de mendizabal]

NORTZUK?

Bai Eskolak Euskalduntzeari kanpainaren babesleak:
Kontseilua-Euskal Konfederazioa-Oinarriak-AEK-IKA-Euskal Herrian Euskaraz- Topagunea-JEU-Hik Hasi-LAB-Euskal Herriak Bere Eskola-Ikasle Abertzaleak- Sortzen Ikasbatuaz

ZER?

Bai Eskolak Euskalduntzeari! lelopean sinadura bilketa oinarria izango duen kanpaina.

ZERGATIA?

Gaur egungo hizkuntza politiken eraginez, euskal ikasleen hizkuntza eskubideak urratzen dira. Urraketa hau, nagusiki, bi modutan ematen da: alde batetik, ikasleen gehiengo zabalari euskara ezagutzeko eskubidea ukatzen zaio, Euskal Herri osoan; eta horrekin batera, Euskal Herriko hainbat eremutan (bereziki, baina ez bakarrik, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian) euskaraz ikasteko aukera bera da ukatzen zaiena.


OINARRIAK-DATUAK:

> Aztiker: 'Hizkuntza ereduak Euskal Herrian. Datu bilketa', 2.004. Ehuneko hauek ondorioztatzeko Eusko jaurlaritzak 2004an egindako azterketaren emaitzak erabili dira.

> Froga EAEn soilik egin zen eta ez zitzaizen G ereduko ikasleei egin. Hala ere, logikoa da pentsatzea emaitzak A ereduko-en parekoak edo okerragoak izango liratekeela.

	IKASLE KOPURUA	FROGA GAINDITUKO EZ LUKETENAK	EUSKALDUNDUKO EZ DEN IKASLE KOPURUA
G eredia	89.666	%100	89.666
A eredia	106.269	%100	106.269
B eredia	72.419	%67	48.520
D eredia	164.375	%32	52.600
OSOTARA	432.729	%68,2	297.055

Ondorioz, honako hau da egungo argazki gordina:



HELBURUA?

Ekimenaren bitartez, eskola bidez haur guztien euskalduntzearen beharra lau haizetara zabaldu nahi da eta Euskal Herrian hezkuntza eskumenak dituzten instituzioetara eskakizuna bideratuko da. Helburua, milaka sinadura bildu eta hauen bitartez instituzioei egun indarrean diren eredu edo politikak gainditzeko eta euskalduntzea bermatzeko prozesuak zabaltzea da. Egoeraren larritasunak batetik, eta egoera hori gainditzeko aukera berriak zabaltzek bestetik, erronka handi bat planteatzera dakar.

NOIZ ETA NOLA?

Sinadura bilketa kanpaina erraldoi hau otsailetik maiatzera bitartera gauzatuko da. Sinadurak biltzeko tokiak Gasteizen:

- . IKA eta AEK-ko euskaltegiak
- . Bagare (aiztogile kalea)
- . EHEren egoitza (aiztogile kalea)
- . LABen egoitzetan
- . Beste: ikastetxe batzuetan, unibertsitatean, lantegietan...



bitxiak / zilarra / osagarriak

Prezio ezin hobeak!
Originaltasuna!

serafin ajuria 13-behea | gasteiz 01008 | 945222130



KANPAINA

>>SINATZEKO TESTUA

BAI ESKOLAK EUSKALDUNTZEARI!

KONTUAN HARTUZ

- X Euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza dela.
- X Berezko hizkuntza ezagutzea nazioartean onartutako giza eskubidea dela.
- X Derrigorrezko hezkuntzak herritarrei oinarrizko ezagutzak bermatu behar dizkiela.

ALDARRIKATZEN DUT

- X Euskaraz ikasteko eskubidea Euskal Herri osoan bermatua izan dadila, ikas maila guztietan eta bereziki derrigorrezko hezkuntzan.
- X Euskara ezagutzeko eskubidea bermatzea herritar orori. Eskolak belaunaldi berriak euskaldundu behar ditu.

ESKATZEN DIET

- X Euskal Herrian hezkuntza eta hizkuntza arloko eskumenak dituzten instituzioei eta bereziki Eusko Jaurlaritzari, Nafarroako eta Frantziako Gobernuari, eskola bidez belaunaldi berrien euskalduntze osoa bermatzeko neurri zehatzak hartzea:

- Euskararen ofizialtasuna aitortu eta gauzatea, egun euskalduntzea bermatzen ez duten hizkuntza eredu politikak gaingitu eta berriak definitzeko prozesuak irekiz, beharrezkoa den aldaketa oso baten bidean urrats gisa.
- Honekin batera, euskarazko irakaskuntzaren kontrako neurriak eten eta euskaraz ikasteko eskubidea bera osoki bermatzea.

- X Hizkuntza eskubideen egoerari jarraipena egiten dioten nazioarteko erakundeei, aipatutako aldarrikapenak gauzatzeko laguntza.



KANPAINAREN EGUTEGI OROKORRA

Otsaila-maiatza > SINADURA BILKETA
KANPAINA > ESKUALDE BAKOITZEKO
EKIMENAK

>otsaileko 1. astea: sinatzaile ezagunak iruñean (nazio mailan)

otsaileko 2. astea: etorkinekin agerpena

otsaileko 3. astea: bilboko ekimena

otsaileko 4. astea: ikasleen ekimena eta ekarpena

>martxoko 1. astea: iruñeako ekimena

martxoko 2. astea: kaltetuekin agerpena

martxoko 3. astea: gasteizko ekimena

martxoko 3 eta 4. asteak: sinatzaile ezagunak baionan

martxoko 5. astea: baionako ekimena

>apirileko 1. astea: hizkuntza eskubideen eguna santurtzin (ehk antolaturik)

apirileko 2. astea: zeharo zehazteke oraindik

apirileko 3. astea: zeharo zehazteke oraindik


apirileko 4. astea: irakasle euskaldunen agerpena

>maiatzeko 1. astea: donostiako ekimena

maiatzeko 2. astea: herri urrats senperen

maiatzeko 3. astea: prentsaurrekoa hurrengo asterako deialdia eginez

maiatzaren bukaeran: kanpainari bukaera emango dioten ekimenak



[arg.: edorta sanz]

EVSKAL LABELA LASAGABASTER

harategia eta urdaitegia
Gasteizko
haragitegirik zaharrena

Errege atea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

Confecciones Pinedo JANTZIAK

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90

DaLvez argitarazleak

diaz de olano kalea, 22 · behea
telefonoa: 652 77 65 09 faxa: 945 24 52 69
www.dalvez.com info@dalvez.com



diseinu grafikoa
maketazioa

liburuak
aldizkariak
afixak

katalogoak



Emakumezkoen takoidun zapata baten irudi modernoa dugu Vocalia abesbatzak kaleratu berri duen lehenengo diskoaren azala. 'Neskatxena' izenburupean, euskal emakumez bakarrik eratutako talde honek bere ibilbide profesionala laburbildu nahi izan du lan honetan, baita abesbatzen ohiko diskoen ideiarekin apurtu ere.

Irudi tradizionaletatik at

[saioa fdz de arangiz]



Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 25 neska gaztez osatuta dagoen Vocalia abesbatza, 1999 urtean eratu zen Basilio Astulez gasteiztarraren zuzendaritzapean. Xede nagusia ahots berdinentzat idatzirik dagoen erreperitorio ugaria ezagutzea eta lantzea zen, betiere euskal konpositoreen musika koralean sakonduz. Basilioaren esanetan, "nire erronka pertsonala izan zen. Betidanik izan dut errespetu handia eta alde aurretiko joera emakumeen abesbatzengan. Batetik, XX. mendean bereziki, nesken abesbatzetan pentsatutako musika zoragarria egin dela uste dut. Bestetik, soilik emakumez eratutako abesbatza erdiz egindako taldea delako uste txarra ezereztatu nahi izan dugu".

Horrela, abesbatza-
ren ohiko erreper-
torioan estilo guztie-
tako obrak sartzen
dira, halarik ere,
musika erromantikoa
eta garaikidea bere-
ziki ditu gustuko.
Taldea dinamiko eta
gazte honek jada sari

ugari irabazi eta jaialdi anitzetan parte hartu du, besteak beste, Italiako Arezzoko polifonia jaialdian edo Tolosako Abesbatzen Nazioarteko lehiaketan.

'NESKATXENA', IBILBIDE PROFESIONALAREN LABURPENA

Izan ere, bere 6 urteko ibilbide profesionala laburbildu nahian, aipatutako 'Neskatxena' diskoa grabatu du Vocaliak. "Urte hauetan landu ditugun musika-lan batzuen lekukotza uzteko beharra sentitu genuen", dio Basilio. "Taldea bizi izandako une oso bereziekin lotuta daude hauek guztiak. Batzuk gure artean gustukoak ditugunak dira eta beste batzuk, ordea, taldearentzat berariaz idatzirik lana", gaineratu du.

Aldi berean, disko berri honekin Vocaliak abesbatzen irudi tradizionaletik ihes egin nahi izan du eta horretarako emakumezkoen takoidun zapata baten irudia erabili du, emakumea zein estetika zaindu eta mimatzen duen taldea den heinean. Horrez gain, kontzertuetako apainketa, soinekoak eta prestaketak asko zaintzen dituen taldea dugu Vocalia.

Etorkizuneko proiektuen artean, Irlandako Cork hiriko nazioarteko abesbatza lehiaketan parte hartzea dago, baita hilaren **4an arratsaldeko 20:00etan Gasteizko Dendaraba Aretoan** Manos Unidas GKEren laguntzarekin eskainiko duen kontzertua ere.

BASILIO ASTULEZ, VOCALIA ABESBATZAREN ZUZENDARIA

Zer dela eta murgildu zinen kantu koralarren munduan?

Betidanik izan naiz musika ikaslea. Olabide ikastolako ikasle ohia izaki, txikitatik bertako elkarte kulturalarekin eta abesbatzarekin ibili naiz. Bertako zuzendaria izandakoak gonbidatu ninduen Euskal Herriko Abesbatzen elkarteak antolatuko ikastaroetara joatera eta hala hasi nintzen, ia-ia brometan, mundu honetan murgiltzen. Gauzak horrela, Arte Ederrak ikasten nituen bitartean, abesten eta Kontserbatorioan kantua ikasten hasi nintzen. Honela, hasiera batean afizio bezala hasi zen eremu hau, nire lanbide bilakatu da.

Eta zerk bultzatu zintuen zuzendari izatera?


Egia esan, kasualitatez iritsi nintzen zuzendaritza ikastaroetara. Jakinmina sentitu nuen eta hasi nintzen. Nire herria den Dulantziko Aiala abesbatzarekin lan egiteko aukera agertu zitzaidan 18 urterekin. 10 urtez egin dut lan bertan eta asko eskertu behar dut nigan jarritako konfiantza. Hortik aurrera, gainontzeko gauzak atera ziren.

Zeintzuk dira zure etorkizuneko proiektuak? Printzipioz, Vocalia taldearekin jarraitu. Horrez gain, egun Leioako Udal Musika Eskolako kantu koraleko irakaslea naiz eta bertako 3 abesbatzak zuzentzen ditut; Kantika haur

abesbatza, La Kantoria gazte abesbatza eta San Juan Bautista abesbatza. Beraz, hemen eta han lan izugarria dut. Izan ere, Vocalia taldearekin 6 urte gehiago sinatzea gustatuko litzaidake. Memento honetan oso gustura gabiltza, zentzu musikalean zein profesionalean. Proiektuak ez dira falta, ezta lana egiteko gogoia ere.

'Neskaxena' disko berriarekin abesbatzen irudi tradizioaletik ihes egin nahi izan duzue, baina egun posible al da hori? Zein da Arabako egungo egoera?

Nire balorazio pertsonala egungo egoerari buruz ez da ona. Ez Araban, ez Euskal Herri mailan. Badaramatzagu hainbat urte lokartu samarrak. Hainbat urtetan, Araban bereziki, haurren abesbatzen mundua oso bizirik egon da. Halarik ere, gure lurraldean batez ere, helduak dira afizioa dutenak eta oraindik abesbatzen zentzu klasikoan ibiltzen gara. Hau da, erlijioari eta elizari lotutako abesbatzak direla uste da eta gazteak erakartzea oso zaila suertatzen zaigu. Hortaz, oso beharrezkoa da erakustea egun musika zoragarria, modernoa eta dibertigarria idazten dela, bereziki, gazteei eta



[arg.: edorta sanz]



haurrei zuzendua. Ez dugu modernotzat hartu behar orain dela 50 urte idatzitako lengoia. Zentzu horretan, oso konformistak gara eta asko kostatzen zaigu gauza

berriak frogatzea, besteak beste, jantzien aldetik gauza berriak jantzea, koreografiak lantzea, etab. Honen falta izugarria dago. •



INSTITUTO POLITÉCNICO

JESUS OBRERO

INSTITUTU POLITEKNIKOA

ESO - DBH

A, B, D EREDUAK

**ETOR ZAITEZ GU EZAGUTZERA****JARDUNALDI IREKIAK****ASTEARTETAN** urtarrilaren 17, 24 eta 31n eta otsailaren 7an 18:00etatik**SEMEEN ETORKIZUNA GAUR HASTEN DA**
DBH-TIK UNIBERTSITATE EDO ENPRESARAINO HEZKUNTZAFrancia 32, 01002 Vitoria-Gasteiz **Tlf.: 945 000 333** www.j-obrero.es jesusobrero@j-obrero.es

cd-a

bonberenea txaranga

www.bonberenea.com

bonberenea txaranga-k bere lehen cd-a aurkeztu zuen iazko abenduan, bonberenea ekintzak zigilupean. bonberenea txarangako kideak gazteak dira, oso gazteak. gazteek egindako diskoa duzu hau, beraz; musika munduan arituak. toki askotan, haien musikarekin alaitu dituzte jaiak: freskotasuna eta ilusioa dario txaranga honi. guztira, 7 kantu berri grabatu dituzte, bonbereneako estudioan (tolosan), gorka otamendia eta jone otxoaren kolaborazioarekin. karlos osinaga 'txap' eta imanól urizar 'screech' arduratu dira grabazioaz.



liburua

emakume ezezagun baten gutuna

www.igela.com

stefan zweig | itzultzailea: eduardo matauko | 2005eko iraila | salneurria 6 euro

emakume ezezagun baten gutuna stefan zweig ek idatzitako nobelatxo labur baina handi bat da. gutun luze eta gartsu batek osatutako nobela honetan, emakume batek, hil baino lehen, bere bizitzako amodio handi eta bakarra izan dela adierazten dio r. idazleari. neskato bat besterik ez zenean maitemindu zela eta bizitza osoan isilean maitatu izan duela, beraren oharkabean. emakumeak gutunean banan-banan kontatzen dizkio gizonari xehe-xehe elkarrekin egondako bakoitzean gertatutako gorabehera guztiak. honela hasten da gutuna: "hau irakurtzen duzunean, hila izango naiz".



ziena

una rosa de francia

iraupena: 100 minutu | urtea: 2005 | zuzendaria: manuel gutierrez aragon
aktoreak: jorge perugorria, alex gonzalez, broselianda hernandez, ana celia

la habana 30. hamarkadan. estatu batueta lege lehorra. kubatik ron eta etorkinen kontrabandoa nonahi, gizarte 'yanki'aren desioak betetzeko.

andres gaztea bere aukeraren bila dabil. simon kontrabandistaren kargu dago eta laster honen jokaera txarrez oharitzen da.

marie prostituta frantziar gaztea daukagu, dena den, bere lana ez zaio asko nazkatzen. aldi berean, erabaki du bere bizitza zintzotasunean oinarrituta egon behar dela; horrek arazoak ekarriko dizkio.

andres berataz maitemindurik dago eta parisera eraman nahi du elkarrekin bizitza berri bat hasteko.



IPIUIN AUSARTA

[txabi arnal gil]



Tituluak arreta erakarri zidan berehala. *Hamaika Andere Ausart. Ausart eta andere hitzak*, bata bestearen ondoan idaztea. Hori bai ausardia! Eta, gainera, ez andere bat ez bi, baizik eta hamaika! Gure zerbaki mugagabea. Hori bai zenbatezina!

"*HAMAIKA andere ausartek ezagutu zuten Al Ahmar; ipuinetan galdu zen bat eta gelditu ziren HAMAR*".

Hamaika andere ausart abentura bila. Hamaika andere ausart protagonista. Ezta gizon bakar bat ere. Ez onerako, ez txarrerako.

Hamaika andere ezberdin. Hamaika lagun. Hamaika andere lagun euren bizimoduarekin maitemindurik.

Hamaika andere ausart. Hamaika aukera. Eta, azkenean, aukera bakar bat: askatasuna.

"*ZORTZI andere ausar Hegoameriketara bidazti; haizeak eraman zuen bat eta gelditu ziren ZAZPI*".

Poesiaz beteriko hamaika andere ausart. Bertsoz osatutako ipuina. Poesia liburua.

Hamaika andere ausart munduan barrena, elkarrekin bidaiatzen, nork bere aukera hartzen.

"*SEI andere ausartek Australian egin zuten zotz; batek lortu zuen kangurua eta gelditu ziren BOST*".

Hamaika andere ausarten abentura. Beldurra baztertuta. Hamaika andere ausart eta bi helburu: zorientzua izatea, aske bizitzea.

"*LAU andere ausart Everestean jo zuteh gailur; hodeietan galdu zen bat eta gelditu ziren HIRU*".

Hamaika andere ausart, hamaika irudi eder. Hamaika andere ausart, hamaika irribarre gozo.

Hamaika Andere Ausart. Oli-Helle Thomassen. Koldo Izagirrek euskaratua. Kalandraka Argitaletxea, 2001. •

■ agur metak

metak diskoetxeak hilabetea bukatzearekin bere ateak itxiiko ditu. egoera ekonomikoak bultzatu du irungo diskoetxea erabaki hau hartzera. inondik inora, euskal musikagintzarako berri oso txarra da, metak-ek ekoizpen landuak, kalitatezkoak eta oso interesgarriak argitaratzeaz gain, taldeekin lan egiteko zuen modua eta eurekin sortzen zen harremana eredu-garriak izan direlako. itxiera hau sektoreak bizi duen krisiaren adierazle da (diskoen salmenta asko jaitsi da azken bost urteetan), are gehiago metak euskal diskoetxe erreferentzialetariko bat izan den heinean.



kanpezu: duela 750 urte, herrixkatik herribildura



alfonso x. jakitunak kanpezuri foruaren pribilegioa eman zion duela 750 urte, orduan herrixka zena herribildu bilakatuz. horren omenez kanpezuk hilaren 11n gertakizun hori gogora ekarriko duen ikuskizuna antzeztuko du. laura mariñas poeta izan da saioaren gidoiaren arduraduna. oholzaratzek hilaren 11n, larunbatarekin, hartuko du leku arratsaldeko 15:00etan kanpezun.



kartel festa tabakoari buruzko legearen harira

erabili.com
tabakoari buruzko legeak berebiziko kartel festa ekarri du. era guztietako kartelak ikus daitezke bazterretan. tartean, badira oraindik kartelik jarri gabe daudenak ere. beharbada, zuk ere hartuko zenuke txukun egindako kartelik han-hemenka banatzeko edo zuenean jartzeko. beharbada, udalerrri bateko euskara zerbitzuan ari zara lanean eta aukera duzu euskarazko kartelak banatzeko. erabili.com-en kartelak eginda aurkituko dituzu, fitxategia ireki, inprimatu eta listo.



munduko 54 herrialdeetatik euskararen mundura, aisa-n

erabili.com
aisa harrera-ikastaroan euskara ikasten aritu dira munduko 54 herrialdeetatik euskal herrira etorritako 325 etorkin.
>etorkinena alor estrategikoa euskararentzat helduen euskalduntze alfabetatzearen ikuspegitik, etorkinena alor estrategikoa dugu eta datozen urteetan garapen nabaria ezagutuko du. ildo horretatik, eusko jaurlaritzak euskal autonomia erkidegoan bizi diren etorkinentzat harrera-ikastaroak antolatuta ditu, baita ikastaro horietan berriaz erabili beharreko ikasmaterialak sortu ere.



duela bi urte hasitako aisa programa azken urteotan euskadira etorri diren etorkinei zuzendutako ekimena dugu, inmigratziorako euskal planaren baitan kokatzen da eta kultura sailak habe-ren bitartez sustatu du, etxebizitza eta gizarte gaietarako saileko inmigratio zuzendaritzarekin lankidetzan. joan den abenduan bi sailek lan hitzarmen baten bitartez formalizatu zuten egitasmo hau, urtez urte, eta hala iritiz gero, berritzen joateko.

gasteizko mendiak, natur parkea

gasteizko iparraldean dauden gasteizko mendiak natur parke izendatu nahi ditu gasteizko udalak. tokiko basoen utsiapen iraunkorra nagusitu da eremu horretan, eta gaur arte balio natural eta botaniko ugari gorde ditu inguruneak. natur parke berriak, eginez gero, 8.849 hektarea hartuko lituzke, eta gasteizko udalerrian dauden 21 herrietan eragina izango luke. 'ekologistak martxan' talde ekologistak "harriduraz" hartu du albiste, orain arte udalak inguru horrekiko sekulako utzikeria erakutsi baitu.



'info7' irrati berria

urtarrilaren 27an eskaini zuten lehen irratsaioa aztibegia elkarteak sortu 'info 7' irratiari. izenak berak dioen bezala, euskal herriko zazpi lurraldeetako informazioa eskaintzea izango da hedabide berriaren lehentasuna. aurkezpen ofiziala bilbon egin zuten egun horretan bertan, eta hasiera batean interneten zabalduko da. nolahi ere, "irratia helburua fm uhinen bidezko irrati masiboa" izatea dela adierazi dute aztibegia-koek.

euskararen norabidea galduta



erabili.com
nafarroan euskalgintzan ari diren 21 eragilek nafarroako gobernuari euskara elkarlanean bultzatzeko egindako eskaintzak berehalako erantzuna izan du nafarroako agintarien aldetik: datorren urtean (2007an) hizkuntzen munduko azokan (expolangues) gaztelania proposatu dute ohorezko gonbidatu izateko.

>kritika gordina eta eskaintza
urtarrilaren erdialdera nafarroan euskara bultzatzen dabilzan 21 erakunde prentsaurrekoa egin zuten nafarroako gobernuak euskararekin duen jokabidea aldarazten ahalegintzeko. batetik, kritika gordina egin zioten nafarroako gobernuari euskara kaltetzeko duen jarrerarengatik: "nafarroako gobernuak guk dakigula, egiten duen bakarra diru-laguntzak banatzea da, datuetan argiki azaltzen den bezala gutxi eta berandu. horrek gure ustez frogatzen du ez duela euskararen erabilpenari bultzada emateko ez plangintzarik, ezta asmorik ere. eta hori gaitzetsi egin behar dugu".

baina, aldi berean, orain artean gertatutakoak eta euskararen kaltetan egindakoak ahaztu eta aurrera begira jartzeko borondatea ere azaldu zuten nafarroako euskalgintzako 21 eragile horiek: "azkenik, hizkuntza politikarako zuzendaritzak nahi badu, euskarazko hedabideok eta euskara elkarteok prest gaude, beti bezala, egoera aztertu eta irtenbidea elkarrekin aurkitzen laguntzeko".

ABAROA: arabako emakumezkoen saskibaloari eusten

Azken urteetan Araban astiro-astiro saskibaloiko nesken taldeak, CB Gasteiz, CB Araba, CB Llodio, besteak beste, desagertuz joan dira. Hori dela eta 2001 urtean arabar jokalaririk batzuek elkarte osatzea erabaki zuten, bi ildo nagusirekin, alde batetik, seriotasunez saskibaloian aritzea eta bestetik, emakumezkoen saskibaloia bultzatzea.

[david alvez]

Lau urte pasa eta gero proiektua finkatuta dago, larogei lagun baitaude sei talde desberdinetan lanean. Hau eta beste kontu batzuek mintzatu gara Aba-roako arduradun losunerekin.

1. mailan izanik zein dira aurtengo kirol helburuak?

Lehenik eta behin mailari eustea, baina sailkapeneko goiko postuetan egoteko borrokatuko gara. Zaila da izazko denboraldia errepikatzea, baina horrek ez du esan nahi saiatuko ez garenik.

Nola doa aurtengo lehiaketa?

Gorabehera asko izan ditugu. Aurre-denboraldia berandu hasi genuen, lesio asko izan ditugu eta entrenatzaile berriari egokitzeak denbora eskatzen du. Zorte txarra izan dugu. Hastear gauden urtean sasoirik onena lortuko dugulakoan gaude.

Nolakoak dira zeuen mailan dauden beste taldeak, erraztasun gehiago dituzte edo zuek bezala dabilta?

Egia esan, ez dugu beste talde eta klub funtzionamendua ezagutzen, baina oztopoak berdintsuak izango dira. Ezberdintasun nagusia filosofia da. Lehen taldeko jokalaririk, jokatzear gain, kluba zuzentzen dugu eta hori benetan zaila da.

Gogorra al da nesken proiektu bat aurrera ateratzea, oraindik asko falta da gizonezkoen parean jartzeko? Hori posible ikusten duzue?

Betidanik egon da emakumea gizonaren



Zk.	IZENA	ABIZENA	ADINA	ALTUERA	POSTUA
5	Ruth	Pierrugues	23	1,70	Basea
6	Txus	Cobo	32	1,60	Basea
7	Iratxe	Rodriguez	23	1,70	Hegala
8	Madelen	Urieta	24	1,75	Heg-Pibota
9	Ainhoa	Alloza	29	1,69	Hegala
10	Raquel	Perez	25	1,70	Hegala
11	Ainara	Urkiza	23	1,79	Pibota
12	Blanca	Pastor	20	1,72	Hegala
13	Maitte	Lpz de Armentia	26	1,82	Heg-Pibota
15	Livia	Lopez	26	1,79	Heg-Pibota
J. Manuel		Izquierdo			Entrenatz.
Iosune		Etxebarriarteun			Delegatua
Angel		Naveros			Delegatua

menpe, baina erakundeek arazoa saihesteko erantzukizun handiagoa hartzen duten momentuan hasiko dira gauzak aldatzen.

Gasteizko beste klub batzuekin harremanak dituzue, ze motatakoak?

Zoritxarrez, gure hirian beste bi klub baino ez daude. Harremanak onak dira baina helburuak ezberdinak. Gure filosofiak ez datoz bat eta hori dela medio bakoitzak bere kasa egiten ditu gauzak.

Eta nesken beste talde batzuekin (rugbya, eskubaloia, futbola...)?

Gure oztopo nagusia denbora falta da. Beste kirol batzuetako klubekin harremanak izatea ondo legoke erakundeak presionatzeko. Modu horretan laguntza gehiago lortuko genuke azpiegituran, eta baita arlo ekonomikoan ere.

Uste al duzue elkartuz gero aldeko zerbait aterako zenuketela, laguntzak, komunikabideetan gehiago agertzea...?

Bai, jakina, batez ere arlo ekonomikoan. Zorionez guk harreman ona daukagu komunikabideekin. Lana errazten diegu eta horren adierazle da aurreko denboraldian lortutako 'aplauso' saria.

Horrekin batera nola tratatzen zaituztete komunikabideek, lekua



daukazu bertan?

Inoiz ez zaituzte nahi beste ateratzen baina ezin gaitzkeke kexa. Gure agerraldiak aldeztu aurretik egindako lanaren ondorioz dira: telefono deiak, prentsa oharak... Komunikabideei lana arintzek agerraldiak areagotzen ditu.

Instituzioetatik, Udala, Diputazioa, Eusko Jaurlaritzatik, laguntzak izan dituzue?

Eusko Jaurlaritzatik ez dugu inongo laguntzarik jaso. Foru Aldundiak laguntzen du baina bere egoera ekonomikoak gu bezalako klubak kontra egiten du. Udalak, aurten, proiektu baten truke laguntza emango digu.

Oraindik jende gutxi doa emakumeek parte hartzen duten kirola ikustera, zer egin daiteke horri buelta emateko? Edo ezinezkoa da?

Jendeak ikuskizuna bilatzen du eta guk horretan zaila daukagu, fisikoki gizonezkoak baino gutxiago garelako. Emakumeak teknikoagoak gara, baina jendeak hori ulertu eta bilatzen ez duen bitartean jai daukagu. Mentalitate kontua da.

Iaz igoera hurbil izan zen; igoz gero posible ikusten duzue proiektu hori finantzatzea...?

Gaur egungo egoera aztertuta, zail

dakusagu, izan ere, nahikoa daukagu orain daukaguna aurrera ateratzearekin. Dena den, ez dakigu zer gertatuko litzatekeen igoera lortuko bagenu.

Zeuen klubean ez dago zuzendaritza batzorderik edo antzeko zerbaite, nork eramaten du arlo hori?

Bai, badago eta lehen taldeko jokalariek osatzen dugu. Jokatu eta kluba zuzentzeaz gain, entrenatzaile edota ordezkarik lanak ere egiten ditugu. Gure kluba lau sailaz osatuta dago: teknikoa, logistikoa, finantzaziokoa eta komunikaziokoa.

Sariak jaso dituzue, zer ekarri dizuete?

Sari hauek lan egiten jarraitzea bultzatu gaituzte. Gainera, komunikabideetako agerraldiak areagotu egin dira, eta hori ona da egun daukagun babesleak pozik mantentzeko eta babesle berriak lortzeko.

Gasteiz zer da saskibaloia edo futbolaren aldekoa?

Zaila da erantzutea baina argi dago saskibaloiak, gure hirian, beste zenbait hiritan baino jarraitzaile gehiago dituela.

Bukatzeko, zer esango zenioke jendeari zeuen partidak ikustera joan dadin?

Tratua hurbila da. Primerako zaleak ditugu

(eta ez dira gutxi!) eta proiektuan jarrita daukagun ilusioa kantxan islatzen da lehenengo taldeko jokariarengan, bai eta igandero-igandero partidak ikustera joan ohi diren klubeko beste jokari eta gurasoengana ere. •

ABAROA

fundazioa: 2001eko ekaina

kontakua: livia lopez

www.cbabaroa.com

cbabaroa@hotmail.com

egoitza: santo domingo plaza, 2

IZENA

Araba hitzaren antza zeukan zerbaitekin bila genbiltzan, beraz hiztegia hartu eta bertan agertu zitzaigun "abaroa" hitza. Itzalpea edo babesleak esan nahi du eta proiektuari hasiera emateko horren beharra geneukanez egokia iruditu zitzaigun.

SARIAK

>2003an

emakunde saria

cope 'arabarrak' saria

>2004an

kirol prentsa elkartearen 'txalo' saria

radio vitoriako 'arabako kirol popularrak' saria

>2005ean

arabako kirol galaren saria

iraganean zeharreko bidaiia. XVI, XVII eta XVIII. mendeak

[erredakzioa]

Bidaia betidanik izan du adierazpen literarioa. Deskribapenak, iritziak eta aburuak aurki ditzakegu egungo Euskal Herriko zona geografikoari eta bertako herriei buruzko testu klasikoan hainbat bildumatan.

kasutan, egileen eskaintzak ere jasota daude bilduman. Itzulpenak, zenbait argitalpen, bertsioak, iruzkinak edo argitalpen kritikoak ere jasota daude bilduma horretan.

Euskal Herritik igaro ziren bidaiarien lanen XVI., XVII. eta XVIII. mendeetako aleen sorta adierazgarria da erakusketa hau. Bidaiaren arrazoiak diplomatikoak, militarrik eta deskribatzaileak -gida baten antzera egindakoak- izan daitezke. Euskal lurraldea zeharkatu beharra zegoen errege-bideari jarraiki Madrilera iristeko. Eta, izan ere, testu gehienak "paseko" deskribapenak dira, euskal hiri eta herriei buruzkoak. XIX. mendeak

eta gerra karlistek iritsi beharko dute euskal lurraldera, bertako kultura, bertako hizkuntza eta bertako inguruabar historikoak bidaiaren arrazoi eta gai nagusi bihurtzeko.

Testuen kalitatea askotarikoa da, testu orijinalekin hasi eta plagioetaraino. Oinarri zientifikoa duten lanekin hasi eta kontakizun anekdotikoetaraino.

Argitalpen-arrakastak eta irakurleen eskariak egiazko

bidaiarien kopurua gairitzen zuen, eta, hortaz, irudimenak eta kopiak ordeztzen zuten gabezia hori. XVI. mendeko testuak XVII. mendean aipatzen dira. XVIII. mendean aurkitzen ditugu datu fidagarriak eta gero eta interes handiagoa; XIX. mendeko lanen ugaritasuna izango da horren guztiaren ondorio.

Erakusten diren ia lan guztiak Antso Jakitunaren euskal liburutegi digitalean kontsulta daitezke:

www.fsancho-sabio.es
eta honako helbide honetan
www.euskadi.net/LiburutegiDigitala/
edo Fundazioaren egoitzan bertan. •

Mendebaldeko kultura, XVI. mendetik aurrera sendotu ziren aurkikuntza geografikoak eta espirtu zientifikoak bidaiari buruzko lan argitalpenaren gorakada ahalbidetu zuten. XVII. mendean erdialdean, bidaiari beharrezko bitartekotzat hartzen zen heziketarako eta natura aztertzeke, eta bidaiariak bisitatzen dituen herrien ezaugarri fisiko, moral eta filosofikoak kontakizun edo gutun-liburuetan jasota geratuko dira; horrelako lan ugari argitaratzen hasiko dira garai horretan. XVIII. mendean, horrelako lanak izango dira gehien irakurri eta argitaratuko direnak, eta otoitz-liburuak soilik izango dituzte aurretik. Aurrekoak baino zientifikoagoak dira orduko lan horiek.

Antso Jakituna Fundazioaren fondo bibliografikoetan, bidaiari edo bidaiaren literaturari buruzko liburuek leku nabarmena dute. Berrogei urteko bilketa-lanaren ondorioz, XVI. mendetik gaur egunera arte argitaraturiko lanez osaturiko bilduma eratu dugu; ale bikainak, enkoaderazio orijinalak eta, zenbait

Adibide bat>>>

Pedro de Medina (1493-1567) astronomo eta kosmografoak penintsulako erresumetako hiriak deskribatzen ditu lan honetan. Horien artean aurkitzen ditugu Gasteiz, Donostia, Hondarribia, Bilbo eta Nafarroako Erresumari buruzko kapitulu bat. Sevillan argitaratu zuten lehen aldiz, 1548an



ERREZETA

SUEZTITAN ETA SALTSA BERDEAN EGINDAKO BAKAILAOA ETA AZA ERREGOSIA PATATA BERRIEKIN

[diocesanas-mendizorrotzako ostalaritza eskola]

> 4 LAGUNENTZAKO OSAGIAK:

Saltsa berdea:	
Baratzuri atalak:	2
Perrexila:	2 koilarakada handi
Gatz-piperra:	apur bat
Bakailao salda:	4 koilarakada handi
Oliba olio birjina:	2 koilarakada handi
Hornigaiak:	
Aza berdea, nerbioak kenduta:	2 orri
Xerra loditan moztutako patatak:	12
Oliba olio:	4 koilarakada handi
Baratzuri xehatua:	1
Maldon gatza:	koilarakada txiki laurdena
Apaintzeko:	
Cherry tomateak:	12
Perrexil hostoak:	4

PRESTAKUNTZA:

- Garbitu, lehortu eta hezurrik kendutakoan zortzi xerra loditan zatitu, olioarekin marinatu eta gerorako gorde.
- Garbitu ondo aza hostoak, hosto bakoitza bitan zatitu eta uretan egosi puntu-puntuan; ondoren, izotz zatiekiko uretan freskatu, xukatu eta gerorako utzi. Cherry tomateak galdarraztatu eta zuritu.



- Patatak lurrunetan egosi eta azarekin batera jarri.

Saltsa berdea:

- Almaiz batean baratzuriak eta perrexil hostoak pikatu ore xehe bat lortu arte; olioarekin eta arrain-saldarekin (fumeta) ondo nahastu.

Hornigaiak:

- Zerrenda zabaletan moztu aza, eta zartaginean jarri patatekin eta tomate txikiarekin batera; oliotan xehatutako baratzuriak erre, eta olio erre hori azari eta patatei bota, maldon gatzarekin gozatu, estali eta segundo batzutan irakitan eduki; ondoren, sutatik kendu.


Amaiera:

- Su ertainean zartagina berotu, olio igurtzi eta bakailaoa azala gora begira duela jarri, minutu batez egiten utzi, puskatu gabe kontu handiz bira eman, eta gainetik saltsa berdea bota; estali eta beste minutu batez egin, sutatik kendu eta utzi pixka batean.

Plateraren aurkeztea:

Plateraren alde batean saltsa lodiarekin estalita, bakailao xerrak ipini, eta ondoan azazko buketa; apaindu platera hiru patatarekin, hiru Cherry tomaterekin eta perrexil hostoekin.

[cristina fernandez blanco]



AGUEDA ZELAIA DÍAZ (GASTEIZ):
"ARABAKO HERRI IZENAK ALDATU
DIRA HISTORIAN ZECHAR?" (II)

Badirudi lehenengo alean Gorka del Pozori ihardesteko asmoz hemen plazaratu genuena baten batek gustukoa izan duela. Hau poza! Honatx, bertzenaz, Agueda Zelaia eskaturikoa: "Datu gehiago Arabako herri izen aldaketa historikoei buruz, mesedez". Bon, ados. Pila bat dagoenez, eta Ordizian ziotenez, "egurra tximinoari!". Horrela, egungo Uda-Trebiñuko "Bajauri" tokia "Basahuri" zen duela mila urte, Bilbo ondoko "Basauri" ezagunaren ahizpa, alegia. Eta konderri bereko "Busto", garai hartako "Bustia" dugu. Zer erranik ez "Castillo" lekuaz, 1025ko "Gaztellu" zena, edota, hagitzez hurbilagoa denbora aldetik, "Costera" dena, 1770eko "Costera-mendieta".

Mila urte igaro eta bitxia da irakurtzea egungo "Erentxun" aspaldiko "Herein-zuhin" moduan idatzi zela, baita gaur baino zortzi mende lehenago ere ia "Arancerenchu" edo "Herenchoyn" bihurtzekotan izan zela. Gehiagorik? Konforme, Agueda, hurrengoan izanen.

CODEX CALIXTINUS (II)

[erlantz urtasun]

Kaixo, irakurle. Aurrekoan egin nuenaz bezainbatean, egun ere Aymerid Picaud izeneko gizon petralaren albiste, orduko euskal populu nahiz izaeraren aitzinean nabarmendu zitzaigun gaizto horren berri eman nahi dizut. Erdi Aroko pertsonaia dugula jakin badakizu, XII. mendekoa, Okzitaniako Parthenay-le-Vieux herrikoa, erran nahi baita egungo frantses estatuko hegoaldekoa, Auñamendi, Pirinioz bertzaldekoka.

Harirat. Bertze daturen bat oraingoz. Honela dio "Liber Sancti Yacobi", hots, Galizako Santiago hiriraino "ongi" iristeko edo karrikaratu zuen "Codex Calixtinus" bidaia liburu gidan, hain zuzen ere gure arbasoei buruzko deskribapena egiterakoan: "Hi vero turpiter vestiuntur et turpiter comedunt et bibunt. Omnis namque familia domus Navari, tam servus quam dominus, tam ancella quam domina, omnia pulmentaria

simul mixta in uno catino, non cum // coclearii; sed manibus propriis, solet comedere et cum uno cippo bibere. Si illos comedere videres, canibus edentibus vel porcis eos computares. Sique illos loqui audires, canum latrancium memorares".

Gurean, honelako zerbait ulertzen ahal dugu: "(euskaldunak) era traketsean janzen dira, eta era traketsean jan eta edan egiten dute. Jauna nahiz morroia, otseina edota andrea, plater beretik elikatzen dira, goilararik gabe, eskuz, eta denek edalontzi beretik edaten dute. Jaterakoan ikusiko bazenitu, zakurrak edota txerriak jaten ari direla irudituko litzaizuke. Hitz egiterakoan adituko bazenitu, zaunkaka ari diren txakurrez oroituko zinateke".

Astakeria? Bai, horixe. Eta, ez pentsa, hurrengo alean are gehiago, hizkuntzaz, bizimoduaz... Edota nafarrok Garazin erraiten dugunez, apetit on!



[? txoko honetan, erlantz urtasun historiagileari euskal herriaren historiaren inguruko galderak zuzenean egiteko aukera duzue. bidali hona zure galdera: geugaste@grn.es]



manu agirre once-ko kabinan

[arg.: argazki press]

MANU AGIRRE

HIZKUNTZ ESKUBIDEEN ALDE GOSE

"Euskaldunak eta itsuak"

Manu Agirre euskaltzaleak gose greba bati hasiera eman zion Durangoko azoka zabaldu berritan. 20 urte baino gehiago dira braille sistema eratu zenetik eta orduz geroztik, aldarrikapen berarekin darrai egun ere, euskarazko liburuak brailera itzultzea, alegia. Bere ekimenaren bidez erakunde publikoei beren ardura eta eginbeharra gauzatzea eskatzen die, eskubideen defentsan lan egitea exijituz.

maite lekue

Durangoko azokan gose greba bat aurrera eraman zenuen. Zer aldarrikatu nahi izan duzu ekimen honen bidez?

Euskal Herrian, 20 urte baino gehiago daramatzagu liburuak euskaraz irakurtzeko aukera sor dadila aldarrikatzen. Orain arte Eusko Jaurlaritzaren aldetik, ezta ONCEn aldetik ere, ez dugu inolako erantzunik jaso. Kultur, informazio eta hizkuntz eskubideak azken muturreraino urrututa daudela ikusita gose greba bat egitera behartua ikusi dut nire burua, egoera larri honi irtenbidea lehen baino lehen ematea eskatuz.

Zergatik aukeratu duzu aldarrikapen era hau? Zein da hizkuntza-eskubidearen defentsan, liburuak euskaraz irakurtzearena alegia, lehenago egindako bidea?

Esan bezala, orain dela 20 urte baino gehiagoko afera dugu hauxe. Gasteizko Parlamentuarekin izan ginen hasierako sasoiarekin, gero alderdiekin, sindikatuarekin jendearekin, Ararteko ezberdinekin ere izandu gara, Hizkuntza Politika arduradunekin ere bai, HABEkoekin, Kultura

Sailekoekin... Egoeraren berri eman izan diegu betiere, eskari desberdinak gauzatu, azken urte hauetan salaketa ugari ere jarri dira eta ezer egiten ez zenez, erantzunik jaso ez dugunez, gose greba ekitea pentsatu nuen.

Nori dagokio gaur egun liburuak brailera itzultzearen ardura?

Lehenengo eta behin aukera hori bermatzea Eusko Jaurlaritzari dagokio. Gizabanakoaren eskubideen bermea jatorriz botere publikoei dagokie. Beste kontu bat da botere publiko horiek eskubideak gauzatzeko eta berme hori bete ahal izateko zein baliabide erabiltzen dituzten erabakitzea. Aukera hau beraiek erabaki behar ko lukete, ONCEn bidez egitearena edo beste erakunde batzuen bidez aurrera eramatea. Egund, itsuei dagozkien zerbitzuak ONCEn esku utzi dituztenez garbi dago ONCEk ere ardura zuzena duela. Jatorriz beraz, Eusko Jaurlaritzari, eta eratorrian berriz, ONCEri.

Nori zuzentzen diozu zure mezua?

Lehenik eta behin Eusko Jaurlaritzari. Euskal hiritarrak teorian baditugu eskubide batzuk, hala nola, informazio eskubidea, hezkuntza eskubidea, eta baita hizkuntza

eskubidea ere. Horrexegatik euskaldunok euskara erabiltzeko eskubidea dugu, nahiz eta maiz oso urratua agertu. Mezuaren lehenengo hartzailea hortaz, Eusko Jaurlaritzak behar luke, berari baitagokio hiritarren eskubideak bermatzea, baita horretarako baliabideak martxan jartzearen ardura ere. Bigarren hartzailea, noski, ONCE erakundea da, berari baitagokio itsuen beharrei erantzun eta gizartean eredu parte-hartzailea bultzatzea.

Gizarte euskaldunari?

Gizarte euskaldun guztiari ere jakinarazi nahi izan diot egoera. Nik pentsatzen dut euskaldunok errazegi onartzen ditugula euskararekiko jasaten diren gutxiespen eta eskubide mugatzeak. Batzuetan errazegi ohitzen gara horrelako gauzetara. Nolabait esateko, beltzune beltz bezala definituko nituzkeen egoera batzuk badira, jende gutxi ikusi nahi dituenak; gurea horietako bat da. Euskaldunak eta itsuak izanik bazterketa bikoitza jasaten dugu.

Durangoko azokan euskaraz makina bat liburu aurkezten dira urtero-urtero eta bitartean zu AEK-ko euskaltegian

GREBARI EKIN ZION ITSUA

"izanik, bazterketa bikoitza jasaten dugu"

izan zinen zure aldarrikapena berriro ere gauzatzen. Egoera paradoxiko hau zelan ulertu?

Zorionez euskarak ekoizpen oparoa du, bai eta sortzeko gaitasuna ere. Horregatik euskaldunak badu gozatzeko aukera eta badaude aldiz, eskubide honetatik erabat aparte geratzen garenak ere. Egoerà hori modu grafikoan, indartsuan edo argian agerian utz nezakeela iruditzen zitzaidan. Alde batetik, ekoizten den guztia nabarmendu eta bestalde, batzuentzat ekoizpen honetara iristea ezinezkoa dela agerian uztea.

Argitaletxeetako arduradunekin egoterik izan al zenuen?

Argitaletxeetako arduradunekin izan garenean jarrera ona erakutsi dute. Arazo hau ostera, ez da merkatu kontua, botere publikoen arduraz baizik. Euskarak orokorrean laguntza publikoa behar du, hori argi dago eta gurea bezalako gizatalde txiki batek merkatuaren arabera, errentagarritasunaren arabera, ezin dio erantzunik eman. Argitaletxeek jarrera irekia behar dute, bitartekoak gauzatzen laguntzeko.

Zeintzuk dira euskarazko liburuak braillera ez itzultzeko aurkeztu

zaizkizun arrazoiak?

Argumentu xebreak betiere. Eusko Jauriaritza zein ONCEk baliabide nahikotxo dituzte, pertsonalak zein teknikoak, egoera honi irtebidea eman ahal izateko. Honen aurrean borondate eskasa, kontrakoa ez denean behintzat, erakusten digute. Emandako argudioak ulergaitzak zaizkigu, zailtasun teknikoak, konplexotasunak, arazo teknikoak... Braille sistema, kode unibertsala da eta braille sistemak berdin-berdin kodifikatzen ditu hizkuntzak. Arazo teknikorik ez dago, ezta ekonomikorik ere. Finean baliabideak badira eta baliabide horiek erabiltzen dakien jendea ere. Kontua norbaitek erabakia hartzea da, testugintzara soilik mugatzen den itzulpena, itzulpen osora zabaltzea.

Gaur egunean erakundeetatik ezinduen integrazioaren normalkuntza aldarrikatzen den bitartean, erreallitatean zeintzuk diraitsu batek bere egunerokotasunean aurre egin behar dien oztopoak?

Egun bizi dugun gizartea ez da integratzailea, baztertzaila edo alboratzailea baizik. Legeari izugarritzko garrantzia ematen

diogu eta legeak berak irabazlearen eta galtzailearen printzipioa dakar. Egungo gizartean integrazioa aldarrikatzen da teoriarik, baina praktikan aldiz, gure sistema sozio-ekonomikoa hain zuzen, bazterketan oinarritzen da. Eredu bat hautatu beharra dago, ezin dena egin da bat aldarrikatu eta bestea gauzatu. Eztabaida hauek ezkertiar ikuspuntutik egin gabe daude eta horren ondorioz beste eredu batzuk inposatzen dira.


Azkenik, zein da Manu zure mementoko egoera?

Nire egoezina plazaratu nahi izan dut ekintza honen bidez. Azken finean, nik hala sentitu izan dut hasiera-hasieratik, nire eskubideen defentsan, nire duintasunaren alde. Ni gizarte bateko partaide naizen neurrian, gizarte horri errespetua eskatzen diot eta errespetu horren adierazle, ze hobe, eskubideak gauzateko aukera izatea baino. Jendeak egoera ezagutzen duen neurrian, eta guztiok antzeko egoerak ezagutzen ditugun heinean, interesa eta arduraz hartzeko balioko digu eta agintarien jarrerari jarraipen kritikoa ematen lagunduko irtenbideen bilaketan. •

✓ braille sistema, kode unibertsala da eta braille sistemak berdin-berdin kodifikatzen ditu hizkuntzak. kontua norbaitek erabakia hartzea da, testugintzara soilik mugatzen den itzulpena, itzulpen osora zabaltzea

✓ eztabaida hauek ezker ikuspuntutik egin gabe daude eta horren ondorioz beste eredu batzuk inposatzen dira

✓ ni gizarte bateko partaide naizen neurrian, gizarte horri errespetua eskatzen diot eta errespetu horren adierazle, ze hobe, eskubideak gauzateko aukera izatea baino





BIDE ERTZEAN TALDEAREN KONTZERTUA GASTEIZEN

IMANOL UBEDA, ABESLARIA: "UNE EDERRA BIZI DUGU ORAIN"

[estitxu breñas glz de zarate]

Bide Ertzean, 90 hamarkada bukaerako pop doinuen berpiztearen aitzindari. 1998an sortu eta gaur arte 5 lan kalean dituela, euskal pop musikan bere bidea egiten dihardu.

www.bidertzean.com

OTSAILAK 10

22:00etan

AZKENA ARETOAN

IKA-k antolatua

Bere poparekin Londres edo Kalifornia edo Baltimore edo Minnessota edo New York-a garamatza. Azken lana, 'Esan bare', heldutasunaren ispilu den lan boro-bila dela esan daiteke. Bertan, besteak beste, pasatzen den denborari, berri on eta txarrei, entzuten jakiteari edota gauzak soseguz esateari abesten diote. Hona hemen Imanol Ubeda abeslariak GEUri adierazitakoa:

Zer-nolako kontzertua eskainiko duzue gasteizen?

2004 urte bukaeran 'Esan bare' diskoa aurkeztu genuen. Errepertorioa lan horren bueltan osatuko dugu. Baina azken bolada honetan, hasiera-hasierako kantuak ere berreskuratu ditugu. Bi zatitan banatu ohi dugu emanaldia. Lehenik, saio akustiko bat eskaintzen dugu. Hasierako kantuei toki egiten diegu lehen zati honetan. Bigarrean, akustika alde batera utzi eta gitarra festa hasten da. Honen ondorioz, saioa biziagoa izaten da. Okerrik ez bada, Fran, Karlos, Joni eta laurokin Joserra Senperena pianojolea ere arituko da. Hammond organoa ere alokatzen dugu jaialdietarako. Joserra jotzen ikusteagatik merezi du jaialdira hurbiltzea.

'Esan bare' zuen azken lanak oso kritika onak jaso zituen... eskarmentuaren isla ote?

Kritikak beti onak izan dira! Lehen diskoa argitaratu genuenetik hona. Eskarmentuarena akaso kantuen osaketan nabarrituko da, nonbait nabaritzekotan. Hala ere, egia da inoiz baino gusturago gaudela taula gainean. Gaizki dago nik esatea, baina taldea onenean dela uste dut.

Nolako izan zen zuen hasiera?, zerk motibatuta?

Anaia eta ni Deabruak Teilatuetan taldeko kide ginen. Taldearen azken txanpan, hasiak ginen tankera honetako kantuak osatzen. DT taldekook atsedean luze bat hartzea erabaki genuenean, bide ertzean zeuden kantu horiek azalarazi genituen anaiak eta biok. Karlos Aranzegi bateriajolea lagun genuen eta proiektua azaltzeko hitzordua jarri genuen. Arratsalde horretan jada entseiatzen hasi ginen. Beraz, kimika kontuak lehen egunetik oso ondo joan dira. Nire gitarra txukuna ez zen eta Fran Iturbe izeneko gitarrajole batek akustika bat saltzen zuela jakin nuen. Iruñera joan nintzen gitarra erostera eta orduan ezagutu nuen Fran. Gitarra erosi ez eta azkenean taldeko kide bihurtu zen Fran.



Eskerrak bizitzak horrelako gauzak dituen, bestela...

Zein izan da zuen ibilbidearen unerik goxo, eztitsu eta bareena?

Ez dakit zer esan. Une ederra bizi dugu orain. Batzuetan bare, bestetan zakar. Baina taldea une gozoan dagoela uste dut. Duela hiru urte bezalaxe, beraz, ez dut erantzun garbirik.

Zertan zabiltzate uneotan?


Kantu berri asko ditugu. Gehienak Gerra


Zibilaren ingurukoak. Garai hartan "gorriak" izateagatik erailak eta desagertuak ditugu etxean. Ez da lan erraza izango. Gaia delikatuia baita, baina gure sormena berritzeko indarra eman digu. Azken kontzertuetan kantu berrietarako tarteak ere izan da.

Gasteizen ere joko dugu kanturen bat.

...Mila esker eta kontzertura arte!

Eskerrik asko gutaz gogoratzeagatik. •

 bide ertzean




[arg.: kemen]



APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ.



>gasteizko irakurle kluba / 06

>>otsailaren 23a, osteguna

Eider Rodriguez, Eta handik gutxira gaur, Susa 2004



GASTEIZKO
IRAKURLE
KLUBA

dinamizatzailea: iban zaldia
lekua: hikaateneoa (pintore kalea, 13) ordua: 20:00

>> martxoan mintzagai izango den liburua: Primo Levi, Sistema periodikoa, Alberdania 1998 [1975]

>geu gasteiz mendi-taldea (geurekin mendira) / 06

>>otsailaren 19an

Bitigarra (1169 m)

goizeko ibilaldia

arduraduna: Maite 945282316

irteera guztiak: Lovaina plazatik / goizeko 9.00etan

> kangeuroak

kangeuro gisa aritu nahi baduzu emaguzu zure izena eta telefonoa, eta zehaztu zure ordutegia: 945222153 / geugaste@grn.es


aldi berean, zerrendan agertu nahi ez baduzu, abisua eman.

ostiral, larunbat eta igandeetan

Berrbizne Urzelai

652711705

euskararen agenda 2005eko abendua			
17	17	17	18
19	20	20	20
23	24	25	27
<p>>GASTEIZKO EUSKARAREN AGENDAREN BERRIPAPERA HILERO JASO NAHI?</p> <p>BIDALI GEUGASTE@GRN.ES HELBIDERA ZURE MAILA, "GASTEIZKO EUSKARAREN AGENDA JASO NAHI DUT" ADIERAZIZ.</p>			



>kultur errota

>>kontzertua:
kokein taldea

eibarko harrobiak emandako azken emaitza, iturri berrietatik eta klasikoetatik edaten duena: pearl jam, incubus... banda gaztea, nahiz eta partaideak beste hainbat taldetan aritutakoak izan. intentsitatearen sokatik tira egiten duten arren soinu eta giro lasaiek ere badute oinarri finkorik. zaloaren ahots partikularrak egungo rock musikarik garaikideena transmititzen du. pilt taldeko partaideen laguntzaz grabatutako cda erakusten ari dira eszenatokitian.

otsailak 14, asteartea
gasteizko parral tabernan,
20.30ean



www.geugasteiz.com | geu@geugasteiz.com | geugaste@grn.es

GEU aldizkaria | GEU Elkartearen ekimenez sortua (1992) | Geu aldizkariko taldeak egina, bideratua eta kudeatua | **erredakzioa:** Pedro Asua kalea, 2 - 3.a. 01008 Gasteiz | **tfnoa. eta faxa:** 945 22 21 53 | **e-mail:** geugaste@grn.es | **www.geugasteiz.com** | **zuzendaria:** estitxu breñas glz. de zarate | **aldizkariko batzardea:** josune velez de mendizabal, edorta sanz, edurne begiristain, estitxu breñas eta david alvez | **kazetariak:** josune velez de mendizabal, edurne begiristain, saioa fdz. de arangiz eta maite lekue | **azaleko argazkia:** galder izagirre | **argazkiak:** edorta sanz eta galder izagirre | **bestelako irudiak-bilaketa:** estitxu breñas glz. de zarate, david alvez | **testuen zuzenketa-orraketa-osaketak:** estitxu breñas glz. de zarate | **itzulpenak:** edurne begiristain, estitxu breñas, aztiri | **maketa:** dalvez-komunikazioa / patirke sanz laguardia | **umorea:** inigo sarasola | **kolaboratzaileak ale honetan:** edu zelaieta, txabi arnal, erlantz urtasun, cristina fernandez, ivef euskalduntzearen aldeko taldea, topaguna, ives matxikote, eta diocesanasmendizorrotzako ostalaritza eskola. | **publizitatea:** aldizkariko batzardea eta edurne begiristain | **sustapen-harpidetza saila:** edurne begiristain, estitxu breñas glz. de zarate | **inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) | **lg:** VI-582/92 | **issn:** 1133-0988 | **Franko Itundua** 48/27 zenb. | aldizkari hau paper berzikiatuz egina dago | GEU aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitako enrantzukizunik.

[Iker Martínez de Lagos. Topagunea Euskara Elkarten Federazioa. Idazkaria]

TOKIKO TELEBISTAK ETA EUSKARA: ESKUBIDE KONTUA



Teknologia berrien eskutik datorkigu tokiko telebisten araua. Garai digitalean sartzen ari gara eta Estatuan telebista digitala legez arautu dute. Eusko Jaurlaritzak, lehenago Nafarroako Gobernuak edo beste batzuek egin duten modura, dekretu bidez zehaztuko ditu EAEn banatuko diren lizentziak erabakitzeko irizpideak. Lehen zirriborroa jadanik ezaguna dugu.

Dekretu zirriborroan tokiko telebistetan euskararen erabilera arautzeko irizpide nagusia ondorengoa da: Eustaten ikerketak hartuta, eremu bakoitzeko biztanle euskaldunen portzentaiaren arabera gutxieneko kuota ezarriko zaizkie eremuko tokiko telebistei. Udalek zuzenean kudeatutako telebistei %50eko gutxieneko kuota ezarriko zaie, eremuko euskaldunen portzentaia txikiagoa denean (bestelako eragileek kudeatutakoentzat ez dago gutxienezkorik). Hala ere, hirigune handienetan udalek hartuko dituzten erabakiak ikusteko daude. Lehenengo sortu zaigun galdera hau da: zergatik ez dira Eustateko datuetan ia-euskaldun moduan sailkatzen diren biztanleak gutxieneko kuota ezartzeko kontuan hartzen? Eta bigarren galdera bat ere gehituko genuke: zergatik ez zaigu euskaldunoi euskara hutsezko kanalik legez bermatzen?

Egin ditugun eskariak (euskara hutsezko telebistentzat erreserbak eta kuota ezartzeko ia-euskaldunak kontuan hartzea) ez dira kapritxoak, ez dira kontu hutsalak edo garrantzirik gabekoak. Ia-euskaldunen multzoan sartzen diren biztanleak euskarazko telebistaren hartzaile potentzialak dira, euskarazko komunikabideak hartzera erakarri nahi den multzoa da. Aintzat hartzeko zenbait datu:

- Eustateko 2001eko datuen arabera, EAeko hiru hiriburuak kokatuta dauden eskualdeetan 294.294 euskaldun eta

356.504 ia-euskaldun bizi ziren urte horretan (bi urtetik gorako biztanleak). Hiru eskualde horietan EAeko biztanleen bi herenak (%67,56) konzentratzen dira. - Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordeari entzundako beste datu bat: elebidunen bi herenak (%66,3) hirietan bizi dira, EAeko errepide sare nagusietan lerratutako 10.000 biztanletik gorako udalerrietan.

Beraz, dekretu zirriborro honen arazoa populazio gune handienetan agerian gelditzen da. Hirietan dauden euskaldunen kopuruak handiak izanik, euskaldunen portzentaia txikia da (ia-euskaldunak aintzat hartuz egoera dezente aldatuko litzateke). Euskaldun gehien bizi den eremuetan egongo dira kuotarik txikienak (Bilbon, %16; Barakaldon, %12; Getxon, %21; Gasteizen, %15; eta Donostian, %39) eta eskaintza gehienek minimoak bakarrik beteko dituztela aurreikusi daiteke. Euskararen erabileraren sustapenaren ikuspegitik, herren dagoen planteamendua da beraz. Bilbon, adibidez, euskaldun eta ia-euskaldunen kopurua gehituta, ia 155.000 lagun zeuden 2001. urtean. EAeko eskualde bakarrak gainditzen du euskaldunen kopuru hori, baina hala ere Bilboko 155.000 euskaldunek ez dute beste eskualde batzuetako euskaldunek edukiko dituzten aukerak izango euskarazko tokiko telebistak izateko. Programazioaren %16 soilik izan behar da euskarazkoa, eta oraindik ez dakigu gainera leku duina izango duen euskarazko programazio horrek. Desproporzioak nahiko agerikoa dirudi.

Irtenbidea erraza da nire uste apalean: ia-euskaldunak aintzat hartu eta euskara hutsezko telebistentzako erreserbak egin, euskaldun guztiok aukera berdinarik izan ditzagun. Eskubide kontua da. •

ia-euskaldunak aintzat hartu eta euskara hutsezko telebistentzako erreserbak egin, euskaldun guztiok aukera berdinarik izan ditzagun. Eskubide kontua da.



LANDAZURI

I K A S T O L A

IKASTOLA
FAMILIARRA

LERRO BATEKO IKASTETXEA 'D' EREDUAN

2006-2007 IKASTURTERAKO MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK
OTSAILAREN 6TIK AURRERA

Informazio gehiago eskuratzeko etor zaitez:
Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 5 • 01009 GASTEIZ
Tfnoa: 945 14 00 66



tokieder ikastola
GASTEIZ

Tokieder Ikastola

D eredua
Kalitatezko hezkuntza euskaldun eta integrala

2006-2007 ikasturterako izen-ematea otsailean

Wellingtongo Dukearen kalea 6, | Lakua 01010 Gasteiz
Telef/faxa: 945 171 210 | tokieder@euskalnet.net



- Koaderno hauek pentsatzen eta hausnartzen laguntzen dute.
- Buruketen soluzioaren logikan sartzen dute ikaslea.
- Arlo honetan zailtasunak izan ohi dituzten ikasleengana zuzendurik daude.




Hamarrendun eragiketak lau eragiketekin

Sekuentziaturik eta eragiketak europar moneta bakarrarekin, euroarekin alegia, burutzeko egokiturik daude.

ARGIBIDEAK ETA ESKARIAK.


ekar



BATUKETAK, KENKETAK, BIDERKETAK, ZATIKETAK, BERREDURAK EDO POTENTZIAK, ZATIKIAK EDO FRAKZIOAK ETA EHUNEKOAK EDO PORTZENTAJEAK